

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ALDEZLEAREN URTEKO TXOSTENA

2021eko abenduaren 15a - 2022ko abenduaren 14a

Iñigo Urrutia Libarona

aldezlea

AURKIBIDEA

Sarrera	3
1. 2022ko aztergaiak	7
1.1. Bulegora jo duen pertsona kopurua eta aztergai kopurua.....	7
1.2. Bulegora jo duten pertsonen generoa.....	8
1.3. Bulegora jo duten pertsonen erabilitako hizkuntza.....	10
1.4. Aztergaiak kolektiboen arabera: ikasleak, IRI, AZP eta "Beste batzuk".....	11
1.5. Aztergai kopurua campusen arabera.....	13
1.6. Aztergai kopurua ikastegien eta zerbitzuen arabera.....	14
1.7. Aztergai motak.....	16
1.7.1. Kolektiboen planteatutako aztergai motak.....	17
1.7.2. Emakumeek eta gizonen planteatutako aztergai motak.....	19
1.8. Kolektibo bakoitzak planteatutako gaiak.....	21
1.9. Bulegoaren esku hartzea.....	28
1.9.1. Baietsitako kexen gaia.....	29
1.9.2. Baietsitako kexen jomuga diren kolektiboak eta organoak.....	32
1.10. Jasotako erantzuna.....	33
1.11. Inplikaturako zerbitzuen eta arduradunen laguntza.....	33
2. Aldezlearen beste eginkizun batzuk	34
2.1. Elkarlana G9 taldeko defendatzaileekin.....	34
2.2. Estatuko Unibertsitate Defendatzaileen XXIV. Jardunaldia.....	34
2.3. CEDUren jardunaldi teknikoa.....	35
2.4. CEDUren XV. Ohiko Batzar Nagusia.....	35
2.5. Elkarlana CEDUren defendatzaileekin, foroetan parte hartuz.....	35
2.6. Bilera Santa Fe Probintziako Defendatzailearekin (Argentina).....	35
2.7. UPV/EHUren Gobernu Kontseiluetan parte hartzea.....	35
3. Urteko txosten ekonomikoa	36
4.-Ondorioak eta gomendioak	37
I. ERANSKINA: 2022ko aztergaien zerrenda	57

Sarrera

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Estutuen 77. artikulua betetze aldera, Aldezlearen urteko jardueren txostena aurkezten diogu Unibertsitate Klaustroari. Txostena dagokio 2021eko abenduaren 15etik 2022ko abenduaren 14ra bitarteko aldiari.

Urteko txostenaren aurkezpena aukera on bat da beti UPV/EHUREN erakunde hau osatzen dugun pertsonok egiten dugun lanaren berri emateko unibertsitateko kide guztiei. Gainera, aukera egokia da ere gogoeta egiteko unibertsitateko kideen eskubideen eta askatasunen bermearen egungo egoerari buruz, baita UPV/EHUREN zerbitzuen zereginari buruz ere, eskubideen bermearen ikuspegitik begiratuta. Edonola ere, memoria honetan jasotako eskubideen eta askatasunen egoerari buruzko ikuspegiak ez digu ematen egoera horren argazki zehatz eta osoa. Aldezlearen bulegora heltzen diren kasuak zehatzak eta bakanak izan ohi dira, eta azken aukera gisa planteatzen zaizkigu ia beti. Hortaz, gehiegizkoa izan daiteke gure ikuspegia estrapolatzea UPV/EHUREN funtzionamendu osora, baldin eta ez bada zuzentzen beste datu eta erreferentzia batzuekin. Kontsulta eta erreklamazio asko unibertsitatearen beste organo batzuek izapidetu eta erantzuten dituzte, hala nola Prebentzio Zerbitzuak, Ikasleen Kontseiluek, Dekanotzek, Errektoreordetzek, Gerentziak eta Gerentziaordetzek... Orain, beste organo bat gehitu behar zaie, UPV/EHUREN Bizikidetzarako Batzordea, aurreikuspenen arabera 2023an sortuko dena.

Ez nuke nahi memoria hau uler dadin betebeharrak formal baten betetze huts gisa. Arautegiak ezarritako betebeharrak izatetik harago, gustatuko litzaziguke txosten honen bidez unibertsitateko kide guztiek gogoeta egitea gure erakundearen funtzionamenduaren gai zehatz batzuei buruz, espiritu kritikoarekin, baina zentzu positiboan, gure lana hobetzeari begira betiere. Kontuan izan behar dugu beti gure erantzukizuna dela zerbitzu publiko bat ematea gizarteari, unibertsitate zerbitzu publikoa, kalitate eta bikaintasun estandar gorenak bermatzen saiatuta, baina aintzat hartuta beti askotariko egoerak eman daitezkeela gure erakundean. Lehenago ere esan izan dugunez, gure unibertsitatearen kalitatea ez da neurtu behar soilik bikaintasun rankingen arabera, eta aztertu egin behar da ere nola kudeatzen dituen hainbat gai, hala nola pertsonen eskubideen bermea, pertsona zaurgarrienen eskubideak eta unibertsitate karrera konbentzional bat egiteko zailtasun handiagoak dituztenenak barne. Kalitate irizpidetzat eta UPV/EHUK gizarteari ematen dion zerbitzuaren handitasunaren erakusgarritzat hartu behar ditugu bai zailtasun handiagoak dituzten pertsonak goi-mailako hezkuntzara eta ikerketara heltzeko aukerarekiko gizarte konpromisoa bai pertsona guztien eskubideen bermea.

Alde horretatik, txosten hau behatoki moduko bat ere izan daiteke, partziala bada ere, detektatzeko unibertsitateko kideak kezkatzen dituzten gaiak eta arazoak. Hori

horrela, gustatuko litzaiguke txosten hau baliagarria izatea Klaustroari azaltzeko, azken urtean eginiko lana ez ezik, baita unibertsitateko kideak kezkatzen dituzten zenbait arazo ere.

2022a izan da normaltasunera itzultzeko urtea, irakaskuntzaren presentzialtasunari eta gure zerbitzuen funtzionamenduari dagokienez, eta atzean utzi ditugu gure egiturak osasun krisira egokitze beharra ezaugarri izan duten bi urte. Bi urte horietan, gure zerbitzu guztiek egoera zail bati egin behar izan diote aurre, eta gogor eutsi diote gizarteari zor diogun zerbitzuari. Asko ikasi behar izan dugu denbora laburrean. Eskerrak eman nahi dizkiet gure unibertsitateko kolektibo guztiei une horren gogorretan egin duten lanarengatik. Beste behin, gure egiturek beren gaitasuna erakutsi dute, eta unibertsitateak berretsi egin du gizartearekiko duen konpromisoa, egoera oso zail batean.

Esan bezala, normaltasuneranzko itzulera agerian gelditu da ere 2022an aztergai izan ditugun gai motetan, eta esan genezake gatazken kudeaketari dagokionez pandemia aurreko etapara itzuli garela. Horren erakusgarri da azken urte honetan irakaskuntza-ikaskuntzari loturiko kexa gutxiago izan direla iaz baino. Nolanahi ere, aipatzekoa da urtearen bigarren zatian areagotu egin dela gatazka sindikala, alde leak gomendioren bat eman duela horren inguruan eta sindikatu batzuek horren berri eman dutela hedabideetan. Negoziazio kolektiboari lotutako gaietan, alde leak kontu handiz eta zuhur jokatu behar du. Uste dugu ez dagokigula guri negoziazio kolektiboan interferitzea, ezta haren emaitzan ere, elkarrizketa sozialaren funtsezko mekanismoa izanik, zeinaren bidez legitimitatea duten eragileek lan baldintzak hitzartu eta adosten dituzten.

Nahiz eta ahalegindu garen, badakit beti ez garela gai izan erantzuteko beren kezka adieraztera gure bulegora etorri diren pertsonen espektatibei eta interesei. Pertsona horiei eskerrak eman nahi dizkiet gudan jarri duten konfiantzagatik eta barkamena eskatu huts egin badiegu haien itzaropenei. Alde learen funtzio instituzionala da unibertsitatearen interes orokorrari begiratzea eta planteatzen zaizkion egoerak ulertzen saiatzea, ñabardura guztiekin, kasuan-kasuan bidezkoa den posizioa aldezteko. Gauza batek gogobetetzen nau: alegia, gure unibertsitateko pertsona askori beren eskubideen eta interesen defentsan lagundu izanak.

Amaitzeko, eskertu nahi ditut ere agintari akademiko guztiek UPV/EHUren alde learekin izan duten prestutasuna, harrera eta kontsiderazioa. Eskerrak ematen dizkiet errektore taldeari eta, bereziki, errektoreari berari, eskatu dudan guztietan harrera egin didatelako, kasu gehienetan gai desatseginak landu behar izan baditugu ere. Era berean, eman diguten laguntza eskertu nahi diet ikastegietako zuzendari eta dekanok guztiei, sailletako zuzendariari, gerentziako taldeari, arlo nahiz ataletako arduradun guztiei eta ikasleen Kontseiluari. Denek begirunez jokatu dute alde learen independentziarekin, guztiz beharrezkoa dena guk ondo lan egiteko. Eskerrik asko Alde learen erakundearen lana errespetatzeagatik.

Sinetsita nago unibertsitatearen arazoen eta gatazken prebentzioa eta ebazpena, maila guztietan, eta gatazkek konpontzeko metodo alternatiboen bilaketa, lagungarri izango direla ere hobetzeko euskal gizarteari ematen diogun zerbitzu publikoa. UPV/EHU osatzen dugun pertsona guztien eskubideen bermeaz kezkatzea eta arlo horretan etengabe hobetzea oinarrizko faktoreak dira gure unibertsitate publikoaren garapenerako. Guztion eskubideak bermatzea modu on bat da hobetzeko gizarteari ematen diogun zerbitzua.

Ezagunak dira aldezeak erabiltzen dituen prozedurak, aurreko txostenetan azaldu baitira. Argibide gehiago nahi dituenak jo beza txosten horietara, eta hemen ideia gako batzuk errepikatu besterik ez dut egingo. Hala, gure esku hartzeak hiru motatakoak izan daitezke:

- **Kontsultak:** kontsultak egiten dizkiguten pertsonak jakin nahi izaten dute zehazki zer eskubide dituzten edo nola babes ditzaketen, eta zein den unibertsitateko organo eta zerbitzuen jardun eremua. Gure zeregina aholkatzea da.
- **Kexak eta erreklamazioak:** UPV/EHUko kideek edo UPV/EHUkoak izan gabe interes legitimoa duten pertsonak planteatzen dituzte, uste dutelako urratu egin direla beren eskubide edo interes legitimoak, administrazioaren jardueragatik edo jarduera ezagatik, edo UPV/EHUko organo, zerbitzu, agintari edo irakasleek hartutako erabakiengatik. Kasu horietan, zerbitzu honek egin dezake orientazio edo jarraipen lan bat, non interesdunari adierazten zaion zer urrats egin behar dituen bere kasua konpontzeko, baldin eta aldezeak esku hartzea debekatuta badu, adibidez, prozedurazko ohiko bideak agortu ez direlako; edo, bestela, gomendio bat helarazi unibertsitate erakunde eskudunari, dagokion azterketa kontrastatua egin ondoren. Gomendio horren xedea izan daiteke gogoraraztea arau jakin bat bete behar dela, edo iradokizun bat ere izan daiteke kasuari aplikatu dakioken arauen bat interpretatzeko moduari buruz; halaber, arau bat aldatzea proposa daiteke, edo arau edo akordio berri bat onartzea, ematen dugun zerbitzu publikoa hobetzeari begira; azkenik, proportzionaltasun irizpen bat ere izan daiteke, babestea merezi duen eskubide edo interesen bat bermatzeari begira.
- **Bitartekaritza-kontziliazio prozesuak:** unibertsitateko bi kideren edo gehiagoren arteko gatazketan planteatzen dira. Konponbidea bilatzeko, elkarrizketan oinarritutako akordioa bilatzen da inplikaturako pertsonen artean, eta aldezeak bitartekari lanak egiten ditu bi aldeen artean, akordio egoki bat bilatzeko.

Aipatu berri diren hiru zeregin motez gainera, "gertakizunen kontaktak" ere jasotzen dira bulegoan, eta, horien bidez, interesdunek egoera edo gertakizun baten berri ematen diote aldezeleari, inolako jarduerarik hasteko eskatu gabe, edo ez jarduteko eskatuz.

Kexak eta erreklamazioak aztertzean ikusten badugu unibertsitateak ez duela zuzen jokatu, gomendio edo iradokizun bat egiten diogu dagokion unibertsitate zerbitzuari, bere jokabidea aldatzeko eskatuz. Kasu batzuetan, ikusten dugu zerbitzuak legearen arabera jokatu duela, nahiz eta gure iritzian egokia litzatekeen beste modu batean jokatzeari, eskubideak hobeto zaintzeari edo administrazio onaren printzipioari begira. Kasu horretan, araua beste era batera interpretatzea gomendatzen dugu, egokiagoa eskubideen eraginkortasunerako eta zabalkunderako.

Txosten honen edukiak aurrekoen oinarritzko egitura bera du, gaien eta haien ezaugarrien bilakaera aztertu ahal izateko. Hasteko, 2022. urtean bulegora iritsi diren kasuak deskribatuko ditugu, aurreko urteetakoekin alderatuta, horren gaineko zenbait ohartarazpen egiteko. Ondoren, bulego honek 2022an eginiko beste lan batzuk aipatuko dira, hala ohikoak nola beste jarduera batzuei loturikoak, eta urteko txosten ekonomikoa aurkeztuko da. Azkenik, txostena amaituko da hainbat gogoeta orokor eginez. Halaber, eranskinean, 2022an aztertutako gai guztien taula ikus daiteke.

Amaitzeko, nire eskerrik zintzoena adierazi nahi diet Aldezlearen zerbitzuko lankide Ana Saralegiri eta Maite Estévezi, haien pazientzia, eraginkortasun eta erakundearekin duten konpromisoagatik. Haiek gabe, ezinezkoa litzateke jarraian aipatuko diren lan asko eta asko egitea.


1. 2022ko aztergaiak

Atal honetan aipatuko dira bulegoak 2022an izan dituen aztergaiak eta haien ezaugarriak. Urtean zehar landutako gai guztien zerrenda ikusteko: [I. ERANSKINA](#).


1.1. Bulegora jo duen pertsona kopurua eta aztergai kopurua

2022an, 190 pertsonak jo dute Aldezlearen bulegora eta 159 aztergai planteatu dituzte (kontsultak, kegak eta bitartekaritza eskaerak). Hala, hazkundera izan da bai eskaera kopuruan, bai bulegora jo duen pertsona kopuruan. Edonola ere, 2022an aldezlearengana jo duen lagun kopurua (190) datu atipiko bat da, urrun dagoena bai aurreko urteetako datuetatik eta baita aurkeztutako eskaeren kopurutik ere (159). Horren arrazoia da aurten kexa kolektibo bat jaso dugula, 46 pertsonak aurkeztuta, aztergai bakartzat hartzen dena, nahiz eta 46 subjekturen izenean (34 IRI eta 12 AZP). Orotara, UPV/EHUren Aldezlearen zerbitzua martxan jarri zenetik, 1.297 pertsona igaro dira gure bulegotik, eta 1.543 kasu eta 101 kontakizun planteatu dituzte.

1. grafikoa ikus daiteke UPV/EHUren aldezlearengana jo duten pertsonen eta aztergaien kopuruen bilakaera zerbitzua abian jarri zenetik igaro diren 11 urteetan. Datuetan ez dago gorabehera handirik, batik bat azken bost urteetan, eta 2022a izan da lan handieneko urtea.





Hurrengo ataletan erreferentziatzat hartuko dugu planteatu diren aztergaien kopurua (159). Gainera, urtean zehar, 16 pertsonak beste 11 aztergai aurkeztu dituzte. Pertsona horiek ez zuten nahi une horretan gure erakundeak zuzenean esku hartzea; aldiz, gertakizun batzuen berri eman nahi zuten, garrantzitsuak unibertsitatearentzat, haien ustez aldezelek jakin beharrekoak. 2. grafikoan ikus daitezke azken urteetan jasotako "gertakizunen kontakizunak".



1.2. Bulegora jo duten pertsonen generoa



Aldezlearengana jo duten 190 pertsonen artetik, 114 emakumeak ziren eta 76, gizonak. Emakumeek planteatu dituzte 93 aztergai eta gizonak, 66. 3. grafikoan ikus daitezke Aldezlearen zerbitzuaren hamaika urteei dagozkien maiztasunak; 4. grafikoan, ehunekoak.



4. grafikoa ikus daitekeenez, lehenengo bi urteetan izan ezik, gure zerbitzura jo duten sexu bakoitzeko pertsonen proportzioa hurbil dago UPV/EHU duten proportzio errealetik, nahiz eta 2022an igoera bat izan den zerbitzura jo duten emakumeen ehunekoan.

1.3. Bulegora jo duten pertsonen erabilitako hizkuntza

159 aztergaietatik, 47 euskaraz planteatu dira, 111 gaztelaniaz eta 1 ingelesez.




2022an, izapidetutako kasuen % 29,6 euskaraz planteatu eta ebatzi dira; hots, aurreko urteko datua eta aztertutako aldiari dagokion batez bestekoa gainditzen duen ehunekoa. 2012tik, aldezlearengana jo duten pertsonen % 25,3 euskaraz aritu dira.


1.4. Aztergaiak kolektiboen arabera: ikasleak, IRI, AZP eta "Beste batzuk"

2022an, ikasleek 61 aztergai planteatu dituzte; irakasle-ikertzaileek, 55; AZPko langileek, 21; eta unibertsitatekoak ez diren pertsonak, 22 ("Beste batzuk" kategoria). Aurten, gora egin dute ikasleek eta AZPko langileek planteatutako kasuek, eta pitin bat behera, irakasle-ikertzaileen eta "Beste batzuk" kategoriaren kasuek.


7. grafikoan ikus daiteke talde bakoitzak hamaika urte hauetan planteatutako aztergaien bilakaera. 2022a izan da AZPko langileen aztergaien kopuru handiena izan duen urtea, maila gorenean mantendu dira irakasle-ikertzaile eta "Beste batzuk" kategoriaren aztergai kopuruak eta gora egin du nabarmen ikasleen aztergaienak.



8. grafikoan ikus daitezke irakasle-ikertzaileen, AZPko langileen eta ikasleen datuak, ehunekotan. 2022an, gora egin dute AZPko langileen aztergaiak, eta zifrarik altuenera iritsi dira 2012az geroztik. Ikasleek planteatutako aztergaien ehunekoa izan da berriz nagusi, nahiz eta alde txikiarekin irakasle-ikertzaileen kasuen ehunekoari dagokionez.




Bestetik, ikasleek 2022an planteatutako 61 gaien artetik, 46 izan dira graduiko ikasleenak, 14 graduondoko ikasleenak eta 1 Esperientzia Geletako ikasleenak (9. grafikoa).




2022an, gora egin dute bai graduiko bai graduondoko ikasleen kasuek, batez ere azken horienek, aurreko urteetako mailetara itzuli baitira 2021ean izandako jaitziera handiaren ondoren.

1.5. Aztergaiak campusen arabera

Unibertsitateko kideengandik iritsi zaizkigun 137 aztergaietatik, 40 aztergai iritsi dira Gipuzkoako Campusetik, 68 Bizkaitik eta 29 Arabatik (dagoeneko esan dugunez, UPV/EHUkoak ez diren pertsonen 22 aztergai jaso ditugu). Datu horiek aurreko urteekin konparatuz gero (10. grafikoa), ikus daiteke 2022an gora egin duela aztergai kopuruak campus guztietan, nabarmentzekoa izanik Arabako campusak izan duen igoera, azken urteetako zifrarik gorenera iritsi dena.



11. grafikoak ehunekotan ematen dizkigu datuak. Campusen araberako aztergaien kopuruak bat datoz gutxi gorabehera campus bakoitzak errealitatean duen pisuarekin. Bizkaiko campusa da aldezleari eskaera gehien egiten dizkiona; ondoren Gipuzkoa eta, azkenik, Araba.



1.6. Aztergaiak ikastegien eta zerbitzuen arabera

1. taulan ikus daiteke Aldezlearen bulegora laguntza eske jo duten pertsonen ikastegien eta zerbitzuen zerrenda. Taulak kontuan hartzen ditu aztergai mota guztiak: kexak (baietsiak izan ala ez), kontsultak eta bitartekaritza eskaerak.

Komeni da erlatibizatzea taulan ageri diren datuak, soil-soilik balio dutelako jakiteko nondik datozen aztergaiak, ez beste ondoriorik ateratzeko hortik kanpo. Aztergai gehienak ikastegi handienetatik datoz, eta kontuan izan behar da ere pertsona askori eragin diezaieketen gaiak izan daitezkeela. Beraz, ikastegi edo zerbitzu baten estatistikak edo datuak asko alda daitezke urte batetik bestera, faktore ugariaren eraginez.

1. taula. Aztergaiak planteatu dituzten pertsonen ikastegiak eta zerbitzuak


Ikastegiak eta zerbitzuak	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Arabako Biblioteka	-	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-
Argitalpen zerbitzua	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-
Arkitektura GET	4	6	4	2	-	-	6	3	1	2	1
Arte Ederren Fakultatea	1	5	1	4	2	1	2	5	4	4	9
Zientzia eta Teknologia F.	3	6	11	7	4	7	7	8	8	11	7
Bilboko Hezkuntza F.	5	3	4	4	7	7	4	6	2	5	1
Bilboko Merkataritza Ganberako UE	-	-	-	2	-	1	-	-	-	-	-
Bizkaiko Biblioteka	-	-	-	-	-	-	-	2	-	-	-
Campuseko Gerenteordetza	-	2	-	-	-	-	2	3	3	-	1
Desgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzua	-	-	-	-	1	1	-	-	-	-	-
Ekonomia eta Enpresa F.	5	24	5	3	5	13	11	10	11	7	5
Enplegu Gunea	-	-	-	-	-	1	1	-	-	-	-
Eraldaketa Digitalaren eta Komunikazioaren arloko Errekt.	-	-	-	-	-	-	1	-	-	-	-
Errektoregoa	1	-	-	-	-	-	-	-	-	4	-
Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errekt.	-	-	-	-	-	-	-	1	1	-	1
Farmazia F.	2	4	4	1	2	2	1	2	6	-	5
Gasteizko Erizaintzako UE	-	1	1	-	2	2	1	-	-	-	-
Gasteizko Ingeniaritza E.	2	4	6	6	2	2	1	1	1	2	5
Gerentzia	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Gipuzkoako Biblioteka	-	1	-	4	2	1	2	-	1	1	-
Gipuzkoako Esperientzia Gelak	-	-	1	-	7	-	1	-	-	-	1
Gipuzkoako Ingeniaritza E.	2	4	2	1	2	10	4	9	10	12	2
Gizarte eta Komunikazio Zientzien F.	6	8	17	9	2	6	5	1	6	5	4
Graduaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren arloko Errekt.	-	1	-	-	-	2	-	-	-	2	-
Graduondokoaren eta Etengabeko Prestakuntzaren Errekt.	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1	1
Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia F.	1	7	10	11	9	21	7	13	15	8	6
Hezkuntza eta Kirol F.	3	1	4	6	3	4	7	1	2	5	4
Idazkaritza Nagusia	-	1	2	1	-	-	-	-	1	-	2
Ikasleen eta Enplegarritasunaren arloko Errekt.	-	-	-	-	-	-	-	2	1	5	-
Ikasleen Kontseilua	2	3	1	1	-	-	-	-	-	-	-
Joxe Mari Korta eraikina	-	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-
Doktorego E. *	-	1	1	5	6	4	2	10	1	3	4
Bilboko Ingeniaritza E.	15	13	13	12	6	11	14	6	10	11	19
Ikerketaren arloko Errekt.	-	-	-	-	1	-	-	-	-	-	1
IKTen Gerenteordetza	3	-	-	2	2	2	1	1	-	2	5
Ikuskaritza Zerbitzua	-	-	-	-	1	-	-	-	-	-	-
IMH Ingeniaritza Duala UE	-	-	-	4	6	7	-	1	1	-	-
Informatika F.	-	2	4	2	-	-	3	4	3	2	3
Irakasle-ikertzaileen arloko Errekt.	-	-	-	-	-	-	1	-	-	-	-
Kimika F.	-	-	1	-	-	-	1	4	-	-	1
Kirol Zerbitzua	-	-	-	-	1	1	-	1	-	-	-
Lan Harreman eta Gizarte Langintza F.	1	4	1	-	1	-	-	1	-	-	2
Letren F.	2	6	16	7	3	3	7	7	10	7	13
Materialen Fisika Zentroa	-	-	-	-	1	-	-	-	-	-	-
Medikuntza eta Erizaintza F.	13	6	17	12	19	15	17	11	11	9	16
Psikologia F.	5	4	1	6	9	10	5	1	4	6	10
Pertsonaleko Gerenteordetza	-	-	1	2	-	-	-	1	1	-	-
Prebentzio Zerbitzua	-	-	-	-	-	1	-	-	-	-	-
Zuzenbide F.	6	7	9	9	5	9	6	10	8	7	8
Beste batzuk **	15	16	26	14	8	20	18	13	20	26	22
Guztira	97	140	164	139	119	164	138	138	142	148	159

*2019ra arte, Master eta Doktorego Eskolatik iritsitako kasuak barne hartzen ditu.

**UPV/EHUtik kanpoko pertsonen planteatutako gaiak barne hartzen ditu.

1.7. Aztergai motak

Aztergaien sailkapenari dagokionez, 2022an jaso dira 118 kontsulta, 39 kexa eta 2 bitartekaritza eskaera. 12. grafikoa konparatzen ditu datu horiek aurreko urtetakoekin.




2022ko aztergaien banaketa 2021koaren oso antzekoa da. 2019ra arte, behera egiten dute pixkanaka kexen eta bitartekaritza eskaeren kopuruek; gora, aldiz, kontsulta gisa planteatutako gaiak. 2020. urtean, hautsi egiten da joera hori lehen aldiz, eta gora egiten dute kexek eta pitin bat behera kontsultek. 2021etik aurrera, kexa kopurua bere horretan mantentzen da; aldiz, kontsulta kopuruak goraka jarraitzen du.

Kontsulta oso baliabide egokia da kasu gehienek tratamendua bideratzeko. Prozedura azkar bat da, eskatzen duena bizkor analizatzea, ikertzea eta kontrastatzea, konponbide egoki bat emateko planteatzen zaigun gaiari. Aldiz, kexaren prozedura burokratizatuago dago, eta fase dokumental landuagoak behar dituzten egoeretarako uzten da.


1.7.1. Kolektiboek planteatutako aztergai motak

13., 14. eta 15. grafikoetan ikus daiteke aztergai mota (kontsulta, kexa eta bitartekaritza eskaera) bakoitzaren bilakaera, kolektiboka.


Kontsulta-kopuruaren bilakaerak goranzko joera erakusten du 2012tik, gorabeherak gorabehera, kolektibo guztietan. Hala ere, 2022an behera egin du irakasle eta ikertzaileen, AZP.ren eta «Beste batzuk» kolektiboaren aldetik jasotako kontsultek. Ikasleen kolektiboan, aldiz, kontsulten kopuruak gora egin du; izan ere, 2021ean izandako beherakada nabarmenaren ondoren, 2022an datu horrek aurreko urteetako maila berreskuratu du.



Rexei dagokienez (ikus 14. grafikoa), 2022an behera egin dute ikasleek eta “Beste batzuk” kolektiboak planteatutako kexek, eta gora, aldiz, irakasle-ikertzaileek eta AZPko langileek aurkeztutakoek. Kexek hamaika urteetan izandako bilakaera aztertzen badugu, gorabeherak ikusten dira, nahiz eta beheranzkoa izan joera nagusia. Unibertsitateko kideek kexak aurkezten dituzte bat ez datozenean unibertsitate organo batek hartutako erabaki batekin, uste dutenean beren eskubideren bat urratzen duela edo beren askatasunen bat murrizten duela justifikaziorik gabe edo neurriz kanpo.




Bestetik, aurten bi pertsonak aldezearen bitartekaritza eskatu dute unibertsitate organoekin izan dituzten aferetan (sail bateko kideen arteko bizikidetzaz gatazkatsua, kasu batean, eta irakasle-ikasle liskarra, bestean).




Oharra: 2012 eta 2015 artean, bat egiten dute AZPko langileei dagokien lerro berdea eta "Beste batzuk" kategoriaren lerro horiak

1.7.2. Emakumeek eta gizonek planteatutako aztergai motak


Atal honetan erreparatuko diogu aztergaiek generoaren arabera izan duten bilakaerari. Esan dugunez, 2022an, 76 gizonak jo dute alde zleazengana eta 66 gai planteatu dituzte; aldiz, 114 emakumeek 93 kasu planteatu dituzte. 16. grafikoak erakusten du urtero eginiko kontsulta kopurua. Ikus daitekeenez, goranzko joera orokor baten barruan, azken urtean beste igoera bat izan da emakumeek planteatutako kontsulta kopuruan; aldiz, aurreko urteetako mailan mantendu dira gizonak eginiko kontsultak. Jasotako kexa kopuruari erreparatuz gero (17. grafikoa), ikus daiteke 2022an aurreko urteko mailan mantentzen direla bai emakumeen bai gizonen kexak. Gizonak planteatutako aztergaien % 30 kexak dira, eta datu hori % 20ra jaisten da emakumeen kasuan. Hori horrela, jasotako kexen guztizkoari begiratzen badiogu, kexen % 51,3 gizonenak dira eta % 48,7, emakumeenak. Beraz, ez dago alde handirik sexu bakoitzak formulatutako kexen ehunekoaren artean; bai, aldiz, kontsulten ehunekoetan, askoz handiagoa dena emakumeen kasuan (%61,8 emakumeak eta % 38,1 gizonak). Bitartekaritza eskaerei dagokienez (18. grafikoa), bilakaerak gorabehera handiak ditu eta ez dago alde esanguratsurik sexuen artean.



17. grafikoa. Emakumeen eta gizonen kexak



18. grafikoa. Emakumeen eta gizonen bitartekaritza eskaerak



1.8. Kolektibo bakoitzak planteatutako gaiak

Kolektiboek zehazki zer motatako arazoak (edozein eratakoak, ez soilik kexak) planteatzen dituzten jakiteko, lau taula aztertuko ditugu jarraian, ikasleei, irakasle-ikertzaileei, AZPko langileei eta "Beste batzuk" kategoriari dagozkienak, hurrenez hurren (2., 3., 4. eta 5. taula).

Taulak antolatuta daude kategorien edo gai espezifikoaren arabera, aurreko urteetako txostenetan jasotako irizpideari jarraituta. Edonola ere, orain arteko esperientzian oinarrituta, aldaketa txikiren bat egin dugu kategorien sisteman; adibidez, azken hamar urteetan ia maiztasunik izan ez duten kategoriak kenduta eta haiei zegozkien kasuak "Bestelakoak" kategorian sartuta. Hori dela eta, desberdintasun txikiren bat aurki dezakegu taula hauetako urteko datuen eta aurreko txostenetan aurkeztutakoaren artean.

Tauletan, zerrenda urdinez nabarmendu dira gutxienez zortzi urtez errepikatu diren gaiak. Bestetik, taula guztietan, parentesien artean adierazi da zenbat kasutan esku hartu duen aldezleak -gaiaren edukia gorabehera-, zegokion organoak ez erantzuteagatik. Horrelako kasuetan, sakoneko gaia prozedura kontuekin gurutzatzen da, hala nola idatzi edo errekurtsio bati epean ez erantzutea, eta kasu horretan gaia kategoria nagusiaren barruan sartzen da.

2. taulan ikus daitezke ikasleek planteatutako aztergaiak dagozkien gaiak. 2022an, gehien errepikatutako gaiak izan dira:

1. **Ikasleen ebaluazioa:** beste urte batez, ebaluazio prozesuak -oro har- eta notak berrikusteko prozedura -bereziki- izan dira ikasleek gehien planteatutako aztergaiak. Orokorrean, ikasleek aldezlearengana jo ohi dute unibertsitate araudiak ebaluazio alorrean aitortzen dizkien eskubideei buruzko zalantza argitzera. Alde horretatik, kontsultak jaso ditugu ebaluazio bereziaren baldintzei buruz, edo azterketako galdera bat baliogabetzeko irakasleek duten eskubideari buruz; halaber, arrazoi justifikatu batengatik azterketa eguna aldatzeko aukerari buruz, edota irakasgai baten talde guztietan ebaluazioa koordinatzeko betebeharrari buruz.
2. **Mugikortasuna:** Arlo honetan sartzen diren gaietan, ikasleak ez zeuden pozik, mugikortasun-programan parte hartzeko eskaera-prozesuan izandako gorabeheraren baten ondorioz edo helmugako unibertsitatean plaza bat esleitu ondoren. Hala, kasu batean planteatu zen ERASMUS mugikortasun jakin bat egiteko hizkuntza-baldintzei buruz GAURen eskaini zen informazioa nahasia izan zela, eta esleitura eduki ondoren mugikortasunari uko egin behar izan ziola, helmugako unibertsitateak eskatutako baldintzak ez betetzeagatik. Ildo beretik, beste kexa batek adierazi zuen ERASMUS plaza bat esleitu ziotela hizkuntzaren baldintza bete gabe, eta, beraz, azkenean ezin izan zuela mugikortasun hori egin. Beste bi kasutan, ikasleek beren atsekabeak agertu zizkiguten destinoko

unibertsitateak ez zuelako bete hartutako konpromisoa, eskaintako egonaldiaren iraupena 6 hilabetetik 3ra murriztuta. Helmugako unibertsitateek ezarritako baldintzak ezin direnez alde batera utzi, ahalik eta argien informatzen saiatu behar da truke-programak eskaintzean, baina, era berean, truke-plaza bat eskatzen duen ikasleak ziurtatu behar du harrera-unibertsitateak eskatzen dituen baldintzak ezagutzen eta betetzen dituela eskaera egiten duen unetik bertatik, behin plaza esleituta, horrelako nahigabeak saihesteko.

3. **Irakaskuntzaren kudeaketa:** ohikoa da jasotzea bai gai administratiboak planteatzen dituzten aztergaiak (talde aldaketa, irakasgai aldaketa...) bai alor akademikokoak (desadostasuna irakasgai bat emateko erarekin, gutxieneko nota sartzea irakasgai bat gainditzeko...), non ikasleek Adezlearengana jotzen duten zalantzak dituztenean eskolak edo fakultateak emandako erantzunaren inguruan.
4. **Irakasleen portaera:** epigrafe honen barruan sartzen dira ikasleek errespetu faltatzat hartu dituzten irakasleen jokabideak, irakaskuntzan nahiz ebaluazioan, baita irakasle-ikertzaileen betebeharren ez-betetzeak ere, irakaskuntzan, tutoretzetan, ebaluazioan, etab.
5. **GRAL/MAL:** epigrafe honen barruan daude gradu/master amaierako lanen tutoretzan sortu diren arazoak, baita lana defendatzean izan diren gorabeherak eta lortutako kalifikazioarekiko desadostasuna ere.

2. taula. Ikasleek planteatutako aztergaiak

Gaia	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Arautegia aplikatzeko modua	-	6	-	-	-	-	1	-	-	-	-
Arautegia ez betetzea	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Arazoak agintariek	1	-	2	-	-	-	-	-	-	-	-
Arazoak kideekin	-	-	-	-	6	-	-	1	-	-	1
Baliozkotzeak eta kredituak aitortzea	-	6 (1)	1	1	2	4	2	2	-	-	2
Datuak babestea	1	-	-	1	-	-	-	1	-	-	-
Diziplina araubidea	1	-	1	-	1	-	-	-	1	-	1
Doktorego aurreko kontratua	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-
Doktorego tesia	2	-	1	5	2	-	1	2	1	3	1
Ebaluazio berezia	6	4	3	5	3 (1)	-	1	-	-	2	3
Espedientea lekuz aldatzea	-	-	-	-	-	2	1	-	-	2	1
Etenaldi akademikoa	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Etika akademikoa	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-	-
Euskarazko arreta	-	-	-	-	1	1	-	-	-	-	1
Euskarazko irakaskuntza	-	-	2	-	-	-	1	-	-	-	1
Familia kontziliazioa	-	-	-	-	1	-	-	-	1	1	-
Genero indarkeria	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Gradu/Master amaierako lana	1	-	4	2	1	3	3	2	3	3	5
Gradura egokitzea	2	3	3	-	-	-	-	-	-	-	-
Greba	-	-	2	-	-	-	-	-	1	-	-
Ikasketetarako sarbidea	5 (1)	1 (1)	-	1	1	2	2	-	4	-	-
Ikasleen ebaluazioa	7 (1)	10	11	16	14	33	8	13	20	8	7
Ikasleen ordezkariak	-	2	3	1	1	-	1	1	1	-	1
Ikasleentzako zerbitzuak	-	-	-	-	-	-	2	-	-	-	-
Ikastegiko zuzendariaren portaera	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Informazioa eskuratzeko eskubidea	-	-	-	-	-	-	-	1	2	-	2
Intimitaterako eskubidea	-	1	-	-	-	-	1	-	-	-	-
Irakaskuntza ingelesez	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-
Irakaskuntza telepresentziala	-	-	-	-	-	-	-	-	-	5	-
Irakaskuntzaren kudeaketa	-	3	10	15	7	9	4	5	5	4	4
Irakasleen portaera	1	4	4	2	1	2	5	4	2	3	4
Jendaurreko arreta	-	3	-	2	-	-	-	2	1 (1)	-	-
Kanpoko praktikak	-	2	3	2	2	2	3	1	1	3	-
Kide anitzeko organoak	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Kideen portaera	-	1	1	-	1	2	1	-	-	-	-
Kredituak aitortzea	-	-	-	-	-	-	-	-	5	1	-
Laguntzak/bekak	-	3 (1)	3	4 (1)	1	4	4	6	2	-	4
Lan baldintzak	-	-	-	-	-	3	-	-	-	-	-
Matrikula	1	4	5	3	4	7	6	7	4	1	4
Matrikula baliogabetzea	-	2	-	1	-	-	1	1	3	1	-
Mugikortasuna	-	-	2	1	-	-	4	4	1	3	6
Ondarezko erantzukizuna	-	-	-	-	-	1	-	-	-	-	-
Plazak/ordezkapen poltsak	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	2
Premia bereziak dituzten pertsonentzako arreta	-	-	-	-	1	1	-	-	-	3	1
Presoentzako arreta	-	-	-	1	1 (1)	-	-	-	1	-	-
Prezio publikoak	3 (1)	2	1	2	2	2	2	1	1	1	2
Tituluak eta ziurtagiriak	-	1	1 (1)	2	-	1	1	-	2	2	4
Tratu baztertzalea	-	-	1	-	-	1	-	-	-	-	-
Tratu berdintasuna	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-	-
UPV/EHUn Jarraitzeko Arauak	-	-	-	-	-	-	2	3	2	-	1
Zerbitzuen portaera	-	2	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Bestelakoak	2	2	1	-	1	1	-	2	1	3	1
Guztira	33(3)	62(3)	68(1)	67(1)	54(2)	81(0)	57(0)	59(0)	67(1)	51(0)	61(0)

Irakasle-ikertzaileen kasuan (3. taula), gai errepikatuenek zerikusia izan dute sailetan plazak eskuratzearekin edo sustatzearekin, eta saileko kideen arteko bizikidetzaren arazoekin. Aurten, gai nagusi gisa gehitu behar zaizkie Informazioa eskuratzeko eskubidea, Irakaslana banatzea eta Erretiroak.

Plazak/ordezkapen poltsak epigrafearen barruan aipatzekoak dira: saileko kideren baten desadostasuna plaza hutsak betetzeko eskaerarentzat ezarritako irizpideekin; kontsultak erabilitako prozeduraren egokitasunari buruz; arazoak ordezkapen poltsa bateko hautagaiak hautatzeko prozesuan, ebaluazio batzordea eratzean; edo etika zientifikorik eza plaza bat betetzeko hautapen proba batean.

Arazoak kideekin kategorian sartzen dira sail baten barruko bizikidetzaren arazoak, saileko kideen artean edo kide baten eta saileko zuzendaritzaren artean. Kasu hauetan saiatzen gara proposatzen irakaskuntzan eta ikerketan lan giro egoki bat sortuko duten neurriak.

Informazioa eskuratzeko eskubidea epigrafearen barruan sartu ditugu irakasle-ikertzaileek hainbat gairen inguruan egin dizkiguten kontsultak: hala nola azterketaren kopia entregatzeko betebeharra; ahozko proba baten grabazioa eskuratzeko hautapen prozesu batean; kide anitzeko organo baten bilkuran irakurritako dokumentu baten kopia eskuratzeko; edo beste irakasle-ikertzaile batek eginiko salaketari buruzko dokumentazioa lortzea.

Aurten gora egin du **Erretiroak** gaiarekin lotutako aztergai kopuruak. Atal hau askotarikoa da: hala nola irakasle-ikertzaile baten desadostasuna bere nominan izandako gorabeherekin, erretiro partziala hartzeko lanaldia murriztu ondoren; edo beste irakasle baten desadostasuna erretiro partziala hartu ondoren ezarri zitzaion irakaskuntza dedikazioarekin. Halaber, irakasle-ikertzaile baten erreklamazioa sartu da, ukatu egin ziotelako erretiro aurreraturako pizgarrien eskaera, eskaera epez kanpo egiteagatik; edo 46 lagunek aurkeztutako kexa kolektiboa (34 irakasle-ikertzailek eta 12 AZPko langilek), ados ez zeudenak Gobernu Kontseiluak giza baliabideak arrazionalizatzeko onartutako planarekin: erretirora igarotzeko neurriak.

3. taula. Irakasle-ikertzaileen aztergaiak

Gaia	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Aplikazio informatikoen funtzionamendua	-	-	-	-	-	-	1	5	1	-	-
Arautegia aplikatzeko modua	-	4	2	-	-	2	2	3	-	1	-
Arazoak agintariekin	1	-	1	-	-	-	-	1	-	-	1
Arazoak kideekin	4	17	13	5	3	3	6	2	5	10(1)	4
Azpiegiturak	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Baimenak	-	-	-	-	-	-	1	-	1	-	-
Barne kontrola	-	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-
Bateraezintasunak	-	-	-	-	-	1	2	1	-	-	-
Burokrazia	-	-	-	-	2	-	-	-	-	-	-
Datuak babestea	-	-	-	1	-	-	1	2	3	2	1
Diziplina araubidea	-	-	-	-	-	2	2	-	3	1	-
Doktorego aurreko kontratua	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1	1
Doktorego tesia	-	-	3 (1)	1	-	2	1	3	-	2	2
Ebaluazio epaimahaiak hautatzea	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Elkargoko kide egitea	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Erosketak	-	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-
Errektoregoaren portaera	-	-	1	1	-	-	-	-	-	-	-
Erretiroa	1	-	-	-	-	-	-	-	-	1	4
Etika akademikoa	1	-	2(1)	1	-	-	2	3	-	-	2
Euskarazko arreta	-	-	-	-	1	-	-	-	-	-	-
Euskarazko irakaskuntza	-	-	-	-	-	-	1	-	-	-	-
Familia kontziliazioa	1	-	-	1	-	1	1	-	1	-	-
GAURen arazoak	1	1	-	-	-	-	-	1	-	-	-
Gradu/Master amaierako lana	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Gradura egokitzea	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Greba	-	-	-	-	1	-	-	-	-	-	-
Hauteskunde araubidea	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-	-
Hierarkian gorago dagoenaren portaera	-	-	-	-	2	-	-	-	-	-	-
Ikasketetarako sarbidea	-	-	-	-	-	-	-	1	-	1	-
Ikasleen ebaluazioa	-	2 (1)	2 (1)	-	3	3	3	1	1	1	1
Ikasleen kexen protokoloa	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	2
Ikasleen portaera	1	3	2	2	2	2	2	2	-	1	1
Ikastegiko zuzendariaren portaera	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Ikerketa proiektuak	1	1	-	-	-	-	-	1	-	2	1
Ikertaldeak	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-
Informazioa eskuratzeko eskubidea	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1	5
Intimitatea, ohorea eta norberaren irudia besteko eskubidea	-	-	-	-	-	-	-	-	3	-	-
Irakaskuntza betebeharrak	-	-	-	-	-	-	-	-	2	-	-
Irakaskuntzaren kudeaketa	-	-	2	-	-	1	1	1	1	1	1
Irakaslanaren banatzea	5	3	6	4 (1)	8 (2)	5	7 (1)	5	4	3	3
Irakaslanaren ebaluazioa	-	-	-	1	3(1)	2	-	2	3	-	-
Irakasleen Hobekuntzarako Plana	-	-	2	-	-	1 (1)	-	-	-	-	-
Irakasleen portaera	-	3	-	-	-	-	2	2	1	1	1
JAP/Kredituen aitortza	2 (1)	2	-	-	2	-	-	-	1	-	1
Jazarpena/jazarpen portaerak	8	2 (1)	2	2	1	-	-	-	-	-	-
Jendaurreko arreta	-	-	-	-	-	1	1	-	-	-	-
Katedra askatasuna	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-	-
Kide anitzeko organoak	-	-	-	-	-	-	-	1	-	-	2
Laguntzak/bekak	-	-	-	1 (1)	1	2	-	-	-	-	1 (1)
Lan baldintzak	3	2	3	2	6	10 (1)	1	3 (1)	2	3	3
Lanen ebaluazio etikoa	-	-	-	-	1	-	-	-	-	-	-
Matrikula baliogabetzea	-	-	-	-	-	1	1	-	-	-	-
Merezimenduen ebaluazioa	-	-	-	-	-	-	-	-	-	3	1
Ordezkaritza organoaren portaera	-	-	-	1	-	-	-	-	-	1	-
Osagarri gehigarriak	1	2	1	3	-	3	-	-	-	3(1)	-
PIF ordainsariak	-	1	2	-	-	-	-	-	-	-	-
Plazak/ordezkapen poltsak	4 (1)	5 (1)	4 (3)	7 (1)	2	8	6	5	6	6(1)	10(1)
Prebentzio eta segurtasun neurriak	-	-	-	-	-	-	-	-	-	2	-
Premia bereziak dituzten pertsonentzako arreta	-	-	-	-	-	-	-	-	-	2	-
Presoentzako arreta	-	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-
Prezio publikoak	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Saileko zuzendariaren portaera	-	-	2	2	1	-	-	-	-	-	-
Tituluak eta ziurtagiriak	-	-	-	-	1	-	-	-	-	-	-
Tratu berdintasuna	-	-	1	-	-	-	2	1	2	-	-
Zerbitzuen portaera	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Bestelakoak	3	1	3	4	1	1	2	2	1	6	5(1)
Guztira	40(2)	50(3)	56(6)	42(3)	41(3)	51(2)	48(1)	48(1)	43(0)	56(3)	55(3)

AZPko langileei dagokienez (4. taula), beste urte batez kolektibo hau gehien kezkatzen duten gaiak dira **plazak** eskuratzea, **ordezkapen poltsak** osatzea eta deialdiak, eta lanpostuko **lan baldintzak**, bereziki lanaldi mota hautatzeari dagokionez. Aurten gehitu behar zaizkie lanpostuko konfort termikoari buruzko keak eta aldi baterako AZPko langileenak, erreklamatzeko dutenak eskubidea dutela AZPko langileentzako ikastaroetan parte hartzeko eta dagokion ziurtagiria lortzeko, baita unibertsitate ikasketetarako matrikula egiteko laguntzak eskatzeko ere.

4. taula. AZPko langileen aztergaiak

Gaia	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Arautegia aplikatzeko modua	-	-	1	-	-	-	2	1	1	-	-
Arautegia ez betetzea	-	1	-	1	-	-	-	-	-	-	-
Arazaok lankideekin	-	1	-	-	1	-	-	-	-	-	4
Azpiegiturak	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Baimenak	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Bateraezintasunak	-	-	-	-	-	-	1	-	-	-	-
Burokrazia	-	-	-	-	-	-	-	1	-	-	-
Datuak babestea	-	-	-	-	-	-	1	1	-	-	-
Diziplina araubidea	-	-	-	-	1	-	-	-	-	1	-
Errektoregoaren portaera	-	2 (1)	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Erretiroa	-	1	-	1 (1)	-	-	-	-	-	-	2
Euskarazko irakaskuntza	-	-	-	-	1	-	-	-	-	-	-
Gatazka hierarkian gorago dagoen pertsonarekin	-	-	-	1	-	-	-	-	-	1	-
Gizarte arretak	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-
Hierarkian gorago dagoenaren portaera	-	-	2	1	2	1	2	1	1	-	-
Ikasleen ebaluazioa	-	-	-	-	-	-	-	-	2	-	-
Ikasleen portaera	-	-	-	1	-	-	1	-	-	-	-
Informazioa eskuratzeko eskubidea	2	-	2	2 (2)	-	-	-	1 (1)	-	-	-
Intimitatea, ohorea eta norberaren irudia babesteko eskubidea	-	-	-	-	-	-	1	-	2	-	-
Irakasleen portaera	-	-	-	-	1	-	-	-	-	-	-
Jazarpena/jazarpen portaerak	1	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Kide bakarreko karguak	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-
Kideen portaera	-	-	-	-	-	4	-	-	-	-	-
Lan baldintzak	4	2	2 (1)	5 (1)	6 (1)	3 (1)	4	4(1)	1	4	7
Lanpostuen balorazioa	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1 (1)	1
Merezimenduen ebaluazioa	2	-	-	1 (1)	-	1	-	-	-	-	1
Plazak/poltsak/lekualdatzeko lehiaketak	2	1	3 (1)	2	-	3(1)	2	6	3	3(2)	4
Prebentzio eta segurtasun neurriak	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-
Prezio publikoak	-	-	-	-	1	-	-	-	-	-	-
Saileko zuzendariaren portaera	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Telelana	-	-	-	-	-	-	-	-	-	2	-
Tituluak eta ziurtagiriak	-	-	-	-	-	-	1	1	-	-	-
Bestelakoak	-	1	1	1	1	-	-	3	1	-	1
Guztira	11(0)	9(1)	14(2)	16(5)	14(1)	12(2)	15(0)	18(1)	12(1)	15(3)	21(0)

Azkenik, "Beste batzuk" kolektiboan (5. taula), 2022ko epigrafe nagusia izan da **ikasketetarako sarbidea**. Horren barruan sartu ditugu UPV/EHUK eskaintako ikasketetara sartzeko arazoekin zerikusia duten aztergai guztiak: hala nola desadostasunak 40 urtetik gorakoentzako sarbide proban lan esperientziari emandako puntuazioarekin; atzerrian eginiko gradu ikasketak aitortzea; goi-mailako eta errendimendu handiko kirolari gisa sartzeko baldintzak; unibertsitatera sartzeko izen-emateei buruzko araudia; edo plaza hutsak betetzeko prozedura, onarpen prozesua amaitu ondoren.

5. taula. "Beste batzuk" kategoriaren aztergaiak

Gaia	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Arautegia aplikatzeko modua	-	-	-	-	-	-	1	-	-	-	-
Arazoak agintariekin	-	1 (1)	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Baliozkotzeak eta kredituak aitortzea	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-
Datuak babestea	-	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-
Diziplina araubidea	-	-	-	-	1	1	1	-	-	1	-
Doktorego tesia	-	-	-	-	-	-	-	1	-	1	-
Erretiroa	-	1	-	-	-	-	-	1	-	-	-
Espedientea lekuz aldatzea	-	-	-	-	-	1	-	1	-	2	2
Etika akademikoa	-	-	-	-	-	1	-	-	1	-	-
Gardentasuna eta gobernu ona	-	-	-	-	-	1	-	-	1	-	-
GAURen arazoak	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Gradu/Master amaierako lana	-	-	-	-	1	-	-	-	-	-	1
Gradura egokitzea	-	-	-	-	1	-	-	-	-	-	-
Ikasketetarako sarbidea	-	3	7	4	1	3	3	1	6	6	6
Ikasleen ebaluazioa	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-	1
Ikasleen portaera	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Ikerketa proiektuak	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-
Informatika aplikazioak	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Informazioa eskuratzeko eskubidea	-	-	-	-	-	-	1	-	-	1	1
Irakaskuntzaren kudeaketa	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Iraunkortasunari buruzko arautegia	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1	1
Jazarpena/jazarpen portaerak	-	-	2	1 (1)	-	-	-	-	-	-	-
Kanpoko praktikak	-	-	-	-	-	-	1	-	-	1	-
Kontratazioa	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Laguntzak/bekak	3 (1)	1	-	1	2	2	1	1	1	-	1
Lan baldintzak	-	-	1	-	-	1	-	-	-	-	-
Matrikula	-	-	2	-	-	-	-	-	2	-	1
Matrikula baliogabetzea	-	-	-	-	-	1	-	-	-	-	-
Merezimenduen ebaluazioa	3	-	-	-	-	-	-	-	1	-	-
Plazak/ordezkapen poltsak	7 (2)	6	4 (1)	2	1	1	3	3	5	6(1)	1
Presoentzako arreta	-	-	-	1	-	-	-	-	-	1	-
Prezio publikoak	-	-	1	-	-	1	-	-	1	-	-
Tituluak eta ziurtagiriak	-	1	-	1	1	4 (1)	3	2	1	-	3
Unibertsitatera sartzeko probak	-	-	3	1	-	-	2	-	1	2	1
Zerbitzu ordainak	-	-	-	-	-	-	-	1	-	-	-
Bestelakoak	-	1	2	2 (1)	-	3	2	2	-	2	2
Guztira	13(3)	15(1)	26(1)	14(2)	8(0)	20(1)	18(0)	13(0)	20(0)	26(1)	22(0)

1.9. Bulegoaren esku-hartzea

Bulegoan planteatu diren 159 aztergaien artetik, kontsulta guztiek (118, jada esan dugunez) erantzun egokia izan dute.

Jasotako 39 kexetatik, 7 ez dira onartu: 4 kexa ohiko prozedura ez agortzeagatik (ez ziren presazkoak); kexa bat, aldezleak gaien eskumenik ez izateagatik; beste bat, kexa anonimo bat izateagatik; eta beste bat, UPV/EHUren organo edo zerbitzuen funtzionamenduari buruzkoa ez izateagatik.

2022an, txikitu egin da onartu gabeko kexen kopurua, berbera izan bada ere jasotako kopurua. Kexa gehienak atzera botatzeko arrazoi nagusia izan da ohiko prozedura ez agortzea. Gogoratu behar da, aldezlearen erregelamenduaren arabera, salbuespen kasuetan izan ezik (presazko gaiak), gure zerbitzuak ez duela esku hartzen ohiko prozedurak eta bideak agortu aurretik, erakundeekiko errespetuak eragotzi egiten baitigu gaien eskumena duen instantziaren ordeztaritzea.

Beraz, 32 kexa onartu dira (jasotako % 82,1). Horietatik, 15 ezetsi dira, xehetasunez aztertu ondoren Zuzenbideak kexaren xedea babesten ez duela kontsideratu delako. Onartutako kexa baten kasuan, aurkezleak berak atzera egin du, kexaren jomuga zen organoak emandako erantzunak gogobete duelako. Hortaz, azkenean, 16 kexa baietsi dira (onartutako % 50). 6. taulak konparatzen ditu datu hauek aurreko urteetakoekin.

6. taula. Jasotako, onartutako eta baietsitako kexak

	Jasoak	Onartuak (jasotako %)	Baietsiak (onartutako %)
2012	72	49 (% 68,1)	34 (% 69,4)
2013	65	37 (% 56,9)	27 (% 73,0)
2014	74	37 (% 50,0)	21 (% 56,8)
2015	50	32 (% 64,0)	20 (% 62,5)
2016	47	26 (% 55,3)	17 (% 65,4)
2017	41	37 (% 90,2)	18 (% 48,7)
2018	33	30 (% 90,9)	14 (% 46,7)
2019	31	28 (% 90,3)	16 (% 57,1)
2020	39	26 (% 66,7)	11 (% 42,3)
2021	39	31 (% 79,5)	12 (% 38,7)
2022	39	32 (% 82,1)	16 (% 50,0)
Guztira	530	365 (% 68,8)	206 (% 56,4)

Horrenbestez, azken urte honetan, mantendu egin da jasotako kexen kopurua aurreko bi urteen maila bertsean, baina aurreko urteetan baino kexa gehiago izapidetu eta baietsi dira.

1.9.1. Baietsitako kexen gaiak

7. taulak biltzen ditu baietsitako kexen gaiak. Urdinez nabarmendu dira gutxienez bost urtez errepikatu direnak.

Ikasleen multzoan, 7 kexa baietsi dira, hainbat gairi buruzkoak (Premia bereziak dituzten pertsonentzako arreta, Baliozkotzeak eta kredituen aitortza, Mugikortasuna, Iraunkortasun arautegia, Ikasleen ordezkariak, Irakaskuntza eta euskarazko arreta). Irakasle-ikertzaileen kasuan, 6 kexa baietsi dira, salatzen zutenak unibertsitateko kideren baten jokabidea edo organo bati eginiko eskaerei erantzun ez izana. Azkenik, AZPko langileen 3 kexa baietsi dira, plazak eskuratzeari eta prestakuntza ikastaroak egiteko aukerari buruzkoak.

7. taula. Baietsitako kexen gaiak

Gaia	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Arautegia aplikatzeko modua	-	2	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Arautegia ez betetzea	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Arazoak kideekin	-	-	-	-	2	1	-	-	-	-	-
Baliozkotzeak/kredituen aitortza	-	2 (1)	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Doktorego tesia	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Ebaluazio berezia	3	-	-	-	1 (1)	-	-	-	-	-	-
Euskarazko arreta	-	-	-	-	-	1	-	-	-	-	1
Euskarazko irakaskuntza	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Gradu/Master amaierako lana	-	-	-	1	-	-	-	-	-	1	-
Ikasketetarako sarbidea	4 (1)	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Ikasleen ebaluazioa	1	2	-	1	3	3	-	-	3	-	-
Ikasleen ordezkariak	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Intimiteterako eskubidea	-	1	-	-	-	-	1	-	-	-	-
Irakaskuntzaren kudeaketa	-	-	1	-	-	-	1	-	-	2	-
Irakasleen portaera	-	-	-	-	-	-	2	-	-	-	-
Iraunkortasunari buruzko arautegia	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Jendurreko arreta	-	2	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Kanpoko praktikak	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Kredituak aitortzea	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-
Laguntzak/bekak	-	1 (1)	-	1 (1)	-	-	-	1	-	-	-
Matrikula	-	-	-	-	-	1	-	1	1	-	-
Mugikortasuna	-	-	-	1	-	-	-	1	-	-	1
Premia bereziak dituzten pertsonentzako arreta	-	-	-	-	-	-	-	-	-	2	1
Presoentzako arreta	-	-	-	-	1 (1)	-	-	-	-	-	-
Prezio publikoak	1	1	-	1	1	-	-	-	-	-	-
Tituluak eta ziurtagiriak	-	-	1 (1)	-	-	-	-	-	-	-	-
Bestelakoak	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Ikasleak guztira	10(1)	11(2)	5(1)	5(1)	8(2)	6(0)	4(0)	3(0)	4(0)	6(0)	7(0)
Aplikazio informatikoen funtzionamendua	-	-	-	-	-	-	-	2	-	-	-
Arautegia aplikatzeko modua	-	1	1	-	-	2	-	-	-	-	-
Arazoak kideekin	-	3	-	-	-	-	1	1	-	1	1
Baimenak	-	-	-	-	-	-	1	-	-	-	-
Burokrazia	-	-	-	-	2	-	-	-	-	-	-
Datu pertsonalak babestea	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-	-
Doktorego tesia	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Erosketak	-	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-
Erretiroa	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Etika zientifikoa (irakasleak)	-	-	1 (1)	-	-	-	-	-	-	-	-
Euskarazko arreta	-	-	-	-	1	-	-	-	-	-	-
GAUREn arazoak	-	-	-	-	-	-	-	1	-	-	-
IHP	-	-	1	-	-	1 (1)	-	-	-	-	-
Ikasleen ebaluazioa	-	1 (1)	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Ikasleen portaera	1	-	-	-	-	1	-	-	-	-	-
Intimitatea, ohorea eta norberaren irudia babesteko eskubidea	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-	-
Irakaskuntzaren kudeaketa	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Irakaslana banatzea	2	-	1	1 (1)	2 (2)	-	1	-	-	-	-
Irakaslanaren ebaluazioa	-	-	-	-	1 (1)	-	-	2	-	-	-
Irakasleen portaera	-	-	-	-	-	-	1	1	-	-	-
JAP/Kredituen aitortza	2 (1)	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Jendurreko arreta	-	-	-	-	-	1	1	-	-	-	-
Laguntzak/bekak	-	-	-	1 (1)	-	-	-	-	-	-	1 (1)
Lan baldintzak	2	-	-	1	1	2 (1)	-	1 (1)	-	-	-
Ordezkaritza organoaren portaera	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-
Osagarri gehigarriak	-	2	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Plazak/ordezkapen poltsak	-	2 (1)	3 (1)	2 (1)	-	-	-	-	2	-	1 (1)
Prezio publikoak	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Tratu berdintasuna	-	-	-	-	-	-	1	1	-	-	-
Bestelakoak	-	1	3	-	-	-	-	-	-	-	1 (1)
IRI guztira	9(1)	10(2)	10(2)	6(3)	7(3)	7(2)	6(0)	9(1)	4(0)	2(0)	6(3)

7. taula. Baietsitako kexen gaiak (jarraipena)

	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Arautegia aplikatzeko modua	-	-	-	-	-	-	1	-	-	-	-
Arautegia ez betetzea	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Bateraezintasunak	-	-	-	-	-	-	1	-	-	-	-
Errektoregoaren portaera	-	1 (1)	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Erretiroa	-	-	-	1 (1)	-	-	-	-	-	-	-
Gizarte arretak	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-
Hierarkian gorago dagoenaren portaera	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Informazioa eskuratzeko eskubidea	1	-	1	2 (2)	-	-	-	-	1 (1)	-	-
Intimitatea, ohorea eta norberaren irudia babesteko eskubidea	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-	-
Irakasleen portaera	-	-	-	-	1	-	-	-	-	-	-
Lan baldintzak	3	1	-	2 (1)	1 (1)	2 (1)	1	2(1)	-	-	1
Merezimenduen ebaluazioa	1	-	-	1 (1)	-	-	-	-	-	-	-
Plazak/poltsak/lekualdatze lehiaketak	2	-	1 (1)	-	-	1 (1)	-	1	-	-	2
AZP guztira	7(0)	3(1)	3(1)	6(5)	2(1)	3(2)	3(0)	3(1)	2(1)	1(0)	3(0)
Espedientea lekuz aldatzea	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-
Gardentasuna eta gobernu ona	-	-	-	-	-	1	-	-	-	-	-
Ikasketetarako sarbidea	-	2	2	1	-	-	-	-	-	1	-
Jazarpena/jazarpen portaerak	-	-	-	1 (1)	-	-	-	-	-	-	-
Kontratazioa	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Laguntzak/bekak	1 (1)	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Merezimenduen ebaluazioa	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Plazak/poltsak/lekualdatze lehiaketak	6 (2)	-	1 (1)	-	-	-	-	-	1	1	-
Tituluak eta ziurtagiriak	-	-	-	-	-	1 (1)	-	1	-	-	-
Bestelakoak	-	-	-	1 (1)	-	-	1	-	-	-	-
Beste batzuk guztira	8(3)	3(0)	3(1)	3(2)	-	2(1)	1(0)	1(0)	1(0)	3(0)	0(0)
GUZTIRA	34(5)	27(5)	21(5)	20(11)	17(6)	18(5)	14(0)	16(2)	11(1)	12(0)	16(3)

1.9.2. Baietsitako kexen jomuga diren kolektiboak eta organoak

8. taulan ikus daitezke baietsitako kexen jomuga diren organoak eta kolektiboak (sei urtez edo gehiagoz errepikatzen direnak nabarmendu dira).

8. taula. Baietsitako kexen jomuga diren kolektiboak eta organoak

Kolektiboak eta organoak	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Argitalpen zerbitzua	-	-	-	-	1	-	-	-	-	-	-
Arkitektura GET Zuzendaritza	-	1	-	-	-	-	-	-	-	1	-
Arte Ederren F. Idazkaritza	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1
AZP	-	-	-	-	-	1	-	-	-	-	-
Bilboko Hezkuntza F. Dekanotza	-	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-
Bilboko Ingeniaritza E. Idazkaritza	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Bilboko Ingeniaritza E. Zuzendaritza	1	-	-	-	-	-	-	-	-	2	-
Bizkaiko Campuseko Errekt.	-	-	-	-	-	-	-	1	-	-	-
DBHko Irakasleen Prestakuntzako M. Zuzendaritza	1	-	-	-	1	-	-	-	-	-	-
Desgaitasunak dituzten pertsonentzako zerbitzua	-	-	-	-	-	-	-	-	-	2	1
Doktorego E. *	-	1	1	-	1	-	-	1	-	-	-
Ekonomia eta Enpresa F. Dekanotza	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-	-
Epaimahai Berezia	-	-	-	-	1	-	-	-	-	-	-
Erosketen atala	-	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-
Errektoregoa	4	3	1	1	1	-	-	-	-	-	-
Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errekt.	1	-	-	1	1	-	-	1	-	-	2
Farmazia F. Dekanotza	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Gasteizko Erizaintzako UE Zuzendaritza	-	-	-	-	-	-	1	-	-	-	-
Gerentzia	8	1	-	-	1	1	1	-	2	2	3
Gipuzkoako Campuseko Errekt.	-	-	-	-	-	-	1	-	-	-	1
Gizarte eta Komunikazio Zientzien F. Dekanotza	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Graduaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren arloko Errekt.	6	3	1	-	-	1	1	-	-	1	-
Graduondokoaren eta Etengabeko Prestakuntzaren Errekt.	-	-	-	-	-	1	-	1	-	-	1
Hezkuntza eta Kirol F. Dekanotza	-	-	-	1	-	-	-	-	-	1	-
Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia F. Dekanotza	-	-	-	-	-	-	-	1	-	-	-
Idazkaritza Nagusia	1	1	1	3	-	-	1	-	-	-	-
Ikaslea	1	1	-	-	2	2	-	-	-	-	-
Ikasleen eta Enplegarritasunaren arloko Errekt.	-	-	-	-	-	-	1	-	-	-	-
Ikerketaren arloko Errekt.	2	1	1	2	1	-	-	1	-	-	-
IKTen Gerenteordetza	-	-	-	-	-	1	-	3	-	-	-
Ikuskizunaren Arteak eta Zientziak M. Zuzendaritza	-	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-
IMH Ingeniaritza Duala UE Zuzendaritza	-	-	-	-	-	2	-	-	-	-	-
Irakasle-ikertzaileen arloko Errekt.	6	3	5	3	3	3	2	2	1	-	3
IRI	-	5	1	-	3	1	4	2	2	1	3
Itsas Ingeniaritzako M. Zuzendaritza	-	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-
Kanpoko Praktiken Zuzendaritza	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Komunikazio Bulegoa	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-	-
Legezko ordezkaria	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-
Master Lanbideratzailearen Zuzendaritza	-	-	-	-	-	2	-	-	-	-	-
Medikuntza eta Erizaintza F. Dekanotza	-	1	1	-	-	-	-	2	1	1	-
Pertsonaleko Gerenteordetza	-	1	1	3	-	1	1	1	2	-	-
Psikologia F. Dekanotza	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Psikologia F. Idazkaritza	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Saileko zuzendariak	2	-	4	-	1	-	1	-	1	-	-
Sarbidea	-	-	2	1	-	-	-	-	-	-	-
UPV/EHU – Osakidetzeta Batzorde Parekidea	-	-	-	-	-	1	-	-	-	-	-
Zerbitziburua	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Zientzia eta Teknologia F. Idazkaritza	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Zuzenbide F. Dekanotza	-	-	1	1	-	1	-	-	-	-	-
Guztira	34	27	22	20	17	18	14	16	11	12	16

*2019ra arte, Master eta Doktorego Eskolatik iritsitako kexak barne hartzen ditu.

1.10. Jaso dugun erantzuna

Kexen jomuga ziren pertsona edo organoengandik jaso dugun erantzuna positiboa izan da ia beti: baietsitako 16 kexetatik 15etan, pertsona edo organo horiek kontuan hartu dituzte bulegoaren planteamenduak eta gomendioak (ikus 9. taula).

9. taula. Kexen jomuga ziren organoen erantzuna

Erantzuna	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Ona	27	22	15	18	15	16	12	16	10	10	15
Ona, neurri batean	3	2	3	2	2	1	-	-	-	1	-
Ezezkoa	4	3	3	-	-	1	2	-	1	1	1
Guztira	34	27	21	20	17	18	14	16	11	12	16

1.11. Inplikaturako zerbitzuen eta arduradunen laguntza

Urteko txostenaren aurkezpenak ematen digun aukeraz baliatuta, eskerrak eman nahi dizkiegu beste behin Aldezlearen zerbitzuarekin kolaboratu duten eta gure lanean lagundu diguten pertsona guztiei: ikastegietako idazkaritzetako eta sailtako langileak, ikastegietako zuzendariak eta dekanok, sailtako zuzendariak, zerbitzuetako arduradunak, Errektore Taldeko kideak, ikasleak, etab.

2. Aldezlearen beste eginkizun batzuk

Kontsultak eta kexak jaso, izapidetu eta ebazteko ohiko jardueraz edo bitartekaritza prozesuez gainera, beste zeregin batzuk ere izan ditugu.

2.1. Elkarlana G9 taldeko defendatzaileekin

G9 taldeko defendatzaileen bileran izan ginen (UPV/EHU talde horretako kide da), 2022ko uztailaren 6 eta 7an, Errioxako Unibertsitateak antolatutakoa. Bilkurak bi saio izan zituen.

- 1) Unibertsitate Bizikidetzari buruzko otsailaren 24ko 3/2022 Legearen garapena. Gai hauek jorratu ziren:
 - Andaluziako defendatzaileen akordioak Unibertsitate Bizikidetzaren Legeari buruz.
 - Zehapenen ordeztarabil daitezkeen baliabideak
 - Legeak aurreikusitako zehapenen analisia.

Saio honetan, G9 taldeko defendatzaileek hitzarmen bat egin zuten Unibertsitate Bizikidetzaren Legeari buruz.

- 2) Ikasleek ebaluazio probak ezin egitea aurreikusita ez zeuden edo gerora sortutako egoerengatik.
 - Kasuak bateratzea eta erabil daitezkeen arautegia aztertzea.
 - Gomendioak idaztea.

2.2. Unibertsitate Defendatzaileen Estatuko XXIV. topaketa

Irailaren 28tik 30era, Unibertsitateko Defendatzaileen Estatuko XXIV. Topaketa egin zen Santiagoko Unibertsitatean. Gai hauek aztertu ziren:

- 1) Unibertsitate Bizikidetzari buruzko Legearen aplikazioaren egoeraren analisia.
- 2) Osasun mentala unibertsitate eremuan.
- 3) Irakasle-ikertzaileen lan eskubideak haien ibilbide profesionalaren hasieran.
- 4) Unibertsitate Defendatzailearen figuraren bilakaera eta Espainiako Unibertsitate Sistemaren Legean (LOSU) duen isla.

2.3. CEDUren Jardunaldi Teknikoa

2022ko maiatzaren 27an, Unibertsitate Defendatzaileen Estatuko Konferentziak jardunaldi tekniko bat antolatu zuen Alcalako Unibertsitatean, gai hauek lantzeko:

- 1) Desgaitasunak dituzten irakasle-ikertzaileen irisgarritasunerako neurri eraginkorrak.
- 2) Defendatzaileen taktikak eta teknikak kexak jasotzean.

2.4. CEDUren XV. Ohiko Batzar Nagusia

2022ko irailaren 30ean, Unibertsitate Defendatzaileen Konferentziaren XV. Batzar Nagusia egin zen Santiagoko Unibertsitatean.

2.5. Elkarlana CEDUren defendatzaileekin, foroetan parte hartuz.

Unibertsitate defendatzaileen arteko etengabeko lankidetzaren barruan, ohikoa da posta elektronikoa erabiltzea hainbat gai planteatu eta haiei buruzko informazioa eskatzeko. 2022an, gure bulegoak parte hartu eta ekarpenak egin ditu CEDUren defendatzaileek planteatutako gaien inguruan. Era berean, erantzun egin diegu aztertutako gaiei buruzko informazioa eskatuz iritsi zaizkigun inkesta guztiei.

2.6. Bilera Santa Fe Probintziako Defendatzailearekin (Argentina)

Urriaren 24an, Iñigo Urrutia aldezleak bilera egin zuen Jaqueline Balangione Argentinako Santa Fe Probintziako defendatzailearekin eta Gorka Moreno Bizkaiko Campuseko errektoreordearekin. Bileran, Iñigo Urrutiak argibideak eman zituen Aldezlearen bulegoaren funtzionamenduaz.

2.7. UPV/EHUren Gobernu Kontseiluetan parte hartzea

Aldezlea Gobernu Kontseiluak eginiko bileretan izan da, gonbidatu gisa. Gobernu Kontseiluaren bileretan parte hartzeak aukera ematen digu sakonago ezagutzeko gure unibertsitatearen eztabaidak, proposamenak eta akordioak, eta sortzen diren arazoak ezagutu eta ulertzeko, eta hori guztia oso baliagarria da gure zereginak betetzeko.

3. Urteko txosten ekonomikoa

2022ko aurrekontua 20.000 eurokoa izan da. 10. taulan ikus daitezke gastuen laburpena eta kontuen egoera urteko ekitaldi ekonomikoa ixteko datan (abenduak 31).

10. taula. 2022ko laburpen ekonomikoa

Hasierako aurrekontua	20.000,00 €
Gastuak	
Bulegoko materiala, fotokopiak...	1.669,34 €
CEDUko bazkide kuotak	225,00 €
Liburuak	81,63 €
Bidaiak eta dietak	11.161,00 €
Beste gastu batzuk	68,96 €
Gastuak guztira	13.205,93 €
Saldoa	6.794,07 €

4. Ondorioak eta gomendioak

2022. urtean aurkeztutako kontsultak eta kexak oinarri hartuta, atal honetan hainbat gogoeta partekatu nahi ditugu unibertsitateko kideekin, bulegora iritsi diren zenbait gairen harira, baita gure ustez arreta berezia merezi duten beste kontu batzuen harira ere, gizarteari ematen diogun zerbitzua hobetze aldera.

Ohartarazi nahi dugu lerrootan aztertuko ditugun gaiak ez direla erabakigarriak estatistikaren ikuspuntutik eta ezin direla hartu UPV/EHUren jardueraren adierazgarritzat. Gai zehatzak dira, eta bakanak, kasu gehienetan. Edonola ere, uste dugu gai hauei buruz gogoeta egitea, nahiz eta esanguratsuak ez izan unibertsitatearen jarduera osoari dagokionez, ezta gaiak planteatzen dituzten kolektiboek dagokienez ere, mesedegarria izan daitekeela unibertsitatearen zerbitzua hobetzeko, horixe delako azken batean aldezearen egitekoa.

Has gaitezen, beraz, ikasleek planteatu dizkiguten gaiak jorratzen.

Irakasgai bat gainditzeko gutxieneko nota

Ikastegi bateko ikasleen ordezkariak planteatu zigun irakasgai batean irakasleak gutxieneko nota exijitzen zuela ebaluazio proba jakin batzuetan eta irakasgaiaren irakaskuntza gidak ez zuela halakorik aurreikusten.

Unibertsitateko Ikasleen Estatutua onartzen duen abenduaren 30eko 1791/2010 Errege Dekretuaren 33.2. artikulua onartzen du ikasleek matrikula aurretik ebaluazio irizpideen berri izateko duten eskubidea. Eskubide hori bermatzeko, ezinbestekoa da irakaskuntza gidak zehaztea irakasgaiaren amaierako kalifikazioan eragin nabarmena izan dezaketen alderdi guztiak.

Irakaskuntza gidaren edukiari dagokionez, UPV/EHUko graduiko ikasleen ebaluazioa arautzen duen Arautegiaren 8.2 artikulua arabera, irakaskuntza gidak zehaztu egin behar du *"proba edo jarduera bakoitzaren haztapena"* irakasgaiaren kalifikazioari dagokionez.

Gainera, adierazi behar du proba horiek *"nahitaezkoak edo borondatezkoak"* diren eta, irakasgaia gainditzeko, proba horietan *"gutxieneko nota"* lortu behar den.

Nahiz eta araudiak ez duen berariaz exijitzen proba bat gainditzeko behar den gutxieneko nota, irakasgaia gainditzat jotzeko irizpide erabakigarria izanik, UPV/EHUren aldezeak gomendatzen du irakaskuntza gidan eskatzen den gutxieneko nota argitaratzea, objektibotasuna, ekitatea eta gardentasuna bermatzeko, ebaluazio probaren edo jarduera ebaluagarriaren aurretik beti.

Ez da gomendagarria nota proba egin ondoren zehaztu eta argitaratzea, sortzen duen ziurgabetasunagatik. Aldezeak uste du egokiena litzatekeela zehatz-mehatz finkatzea irakaskuntza gidan ebaluazio proba bakoitzean eskatutako gutxieneko

nota, babesgabetasun egoera oro saihesteko. Horrela, objektibotasun bermeak indartuko lirateke, nola irakasgaiaren ebaluazioan hala eginiko ebaluazioaren balizko berrikuspen prozesuan.

Gomendio honen arabera, ebaluazio proba bakoitzean eskatzen den gutxieneko nota zehatza irakaskuntza gidan finkatuko balitz, Saileko Kontseiluak aztertu beharko luke, organo horri baitagokio, gainera, Sailen Esparru Erregelamenduaren 12.1.d artikulua arabera, irakaskuntza eskaintza ebaluatzen irizpideak onartzea.

Artikulu hori ikuspegi zorrotz batetik hartuz gero, baldin eta ebaluazio irizpideak zehaztea Saileko Kontseiluari badagokio, irakasgai arduratzen den irakaslea horretan eskumenik ez duen organotzat har liteke. Horrenbestez, aldeziek gomendatzen du ebaluazio proben gutxieneko nota finkatzea, berme guztiekin, irakaskuntza gidan, ziurtasun printzipioa eta aurretiazko lex printzipioa betez.

Malgutasuna azterketen egutegian UPV/EHUko ikasleen ordezkariarentzat, beren kargua dela-eta behar bezala akreditatutako bilerak prestatu eta horietan parte hartzeko.

Ikasleen ordezkari bat harremanetan jarri zen Aldezlearen bulegoarekin azterketetan dauden eta ordezkariak karguak dituzten ikasleen egoera zailaz ohartarazteko. Izan ere, bateragarri egin behar dituzte azterketak eta karguaren ondorioz dituzten bilerak, eta denbora tarte txikiak egon ohi dira bi zeregin horien artean.

Unibertsitateko Ikaslearen Estatutua onartzen duen abenduaren 30eko 1791/2010 Errege Dekretuarekin bat etorritik, UPV/EHUko Ikasleen Arautegiaren (2016ko abenduaren 22ko EHAA) 175. artikulua arabera, ikasleen ordezkariak *"eskubidea dute bateratzeko beren jardura akademikoa beren ordezkariak lanekin, kalterik egin gabe beren prestakuntzari"*. Beraz, arautegiak onartzen duen eskubide bat da, bi zereginak bateratzeko: lan akademikoa eta ordezkariak jardura. Arauak eskubide hori baiesten du, garatzen ez badu ere. Nolanahi ere, arauak ez garatzeak ez du esan nahi kontu funsgabe bat denik. Eskatzen dena da neurri eraginkorrak artikulatzea bermatzeko ikasketak eta ordezkariak lana bateratzeko eskubidearen efektu erabilgarria.

Ordezkaritza lanen eta betebeharrak akademikoen bateragarritasuna bermatzeko aldera, Arautegiak neurri batzuk aurreikusten ditu ikasle horien behar espezifikoak erantzuteko: hala nola gehienez ere nahitaezko eskola saioen %25era arteko bertaratze hutsegiteak justifikatzea (17.5 artikulua), irakasleek tutoretza osagarriak finkatzea (17.5 artikulua) edo ebaluazio proben eguna eta ordua aldatzea, bat datozenean kide anitzeko gobernu eta ordezkariak organoen bilerekin (65.4 artikulua).

65. artikulua zehazki aipatzen du ebaluazio probaren eta kide anitzeko gobernu organoaren saioaren arteko *bat etortzea*, azterketaren eguna aldatzeko oinarri gisa. Arauak *bat etortzea* terminoa erabiltzen du. Planteatzen zaigun kontua da nola interpretatu kontziliazio eskubidearen irismena. Izan ere, 65.4 artikuluan jasotako neurriaren interpretazio murriztaileak mugatu egiten du irismen hori, ezin baitzaio behar bezala erantzun arau berak ikasleei oro har aitortzen dien eskubidearen efektu erabilgarriari.

Aldezlearen ustez, arauak bermatu nahi duena da ikasleek aukera izatea ordezkari lan garrantzitsuak egiteko, kaltegarri izan gabe ebaluazio probetan lortu beharreko errendimenduarentzat. Ikuspuntu horretatik, uste dugu unibertsitate kolektibo baten ordezkari lanen eta ebaluazio proben arteko kontziliazioa ezin dela mugatu soil-soilik ordutegiaren kointzidentziara, eta zabaldu egin behar dela aurreko denbora tarte batera, arrazoizkoa izango dena, oreka bat lortzen saiatuta proba horietara aurkeztu diren ikasledeen egoerarekiko.

Hori oinarri hartuta, aldeak gomendatzen du, UPV/EHUko Ikasleen Arautegiaren 175. artikulua (1791/2010 Errege Dekretuaren 36.e artikulua) ikasleen ordezkari karguak betetzen dituztenei aitortzen dien eskubidea eraginkortasunez bermatze aldera, modu ez murriztaile batean interpretatzeko arautegi horren 65.4. artikulua, azterketen egutegia malgutzeko beharrari erantzuteko, egutegi hori bat datorrenean ikasleen ordezkari kide anitzeko unibertsitate organoen bilerekin, deialdia egin duen organoaren idazkaritzaren ziurtagiri bidez justifikatutako bilerak.

Hori dela eta, kide anitzeko ordezkari organoaren bilera azterketaren egunaren bezperan denean, gomendatzen da azterketa eguna aurreratzea edo atzeratzea, kargua dela-eta bilerara joan behar duten ikasleen kasuan, ikasleen ordezkari lanak eraginik izan ez dezan ikasleen jardura akademikoan.

Gomendio horren arabera, eta Ikasle Kontseiluak proposatuta, 2022ko abenduaren 15ean, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak UPV/EHUko Ikasleen Araudiaren aldaketa onartu zuen. Aldaketa horretan, besteak beste, 17.5 artikulua aldatzen da, honako eduki hau jasoz: *"Ondorio horretarako, ordezkariak ebaluazio proba batera aurkeztu ezin direla joko da, baldin eta ebaluazio proba horretarako programatutako orduaren aurreko hogeita lau orduen barruan egiten bada dagokion organoaren bilera"*.

Ebaluazio proben kopia eskuratzeko ikasleen eskubidea

2022an, berriz ere galdetu zaigu ea ikasleek eskubidea duten azterketen kopiak eskuratzeko eta irakasleek kopia horiek entregatu behar ote dituzten. Kontsulta hau aurretik ere egin izan digute, batik bat ikasleek, baina baita noizbait irakasle-ikertzaileek ere, horri buruzko azalpen bila etorri zaizkigunak, eta gure erantzuna beti izan da ikasleek eskubidea dutela eginiko azterketaren kopia eskuratzeko, notak berrikusteko prozedura baten barruan. Hori horrela, dokumentazio bat edukiko dute

balizko erreklamazioa egiteko, eta aukera emango du horrek zuzendutako azterketa sakon aztertzeko (erantzunak zuzenak diren egiaztatzea, erabilitako zuzenketa irizpideak irakaskuntza gidan adierazitakoarekin bat datozen, desadostasuna eragin duen azterketaren edo zuzenketaren zatia zehaztea...) eta erreklamazio zehatz eta argudiatu bat egiteko, argudiatuta ere egongo den ebazpen bat lortze aldera. Kasu honetan, jaso dugun kontsultak ematen digun aukera baliatu nahi dugu iritzi hori berresteko eta berriro ere ikasleek azterketen kopiak lortzeko duten eskubidearen alde egiteko.

Irakasgai baten kalifikazioa azken ebazpen egintza bat da administrazio prozedura zehatz batean, irakasgaiaren matrikulazioarekin hasten dena eta nota aktan jasoz amaitzen dena. Hala adierazten du Auzitegi Gorenak otsailaren 10eko STS 438/2017 epaiak: *"Desde la admisión de un ciudadano en una Universidad, como estudiante, hasta la expedición del título discurre pues un proceso complejo en el que pueden desarrollarse múltiples procedimientos administrativos en lo que afecta a la relación, de naturaleza administrativa, entre el estudiante, como titular de derechos y deberes y la Administración, esencialmente, la Universitaria, que desarrolla sus potestades a través de diversos órganos" [..]. "El relativo a la evaluación, o sistema de exámenes, suele venir atribuido por las diversas Universidades en sus específicas regulaciones al profesor con capacidad docente, con o sin complementos en eventuales previsiones revisoras de la inicial resolución de quien califica inicialmente el resultado del examen u otro mecanismo evaluador"*. Hori horrela, Auzitegi Gorenak ondorio hau ateratzen du: *"La decisión del personal administrativo, en general el profesor, que fija el nivel de adquisición de conocimientos, con destino al expediente del alumno, y que se refleja, al ser definitiva, en un acta, constituye pues de manera indudable un acto administrativo de resolución definitiva de un procedimiento de tal naturaleza."*

Irakasgai baten kalifikazio akta, beraz, ebazteko administrazio egintza bat da, eta, dakigunez, herri administrazioen egintzen aurrean, legeak herritarren eskubideak babesten ditu, hainbat mekanismoren bidez; besteak beste, administrazio errekurtsoen sistemaren bidez. Errekurtsio sistemaren bitartez, administrazio prozedura batean legitimatuta dagoen pertsonak aukera du administrazio organo batera jotzeko, helburua izanik aldatzea edo baliogabetzea organo horrek berak edo haren beheragoko hierarkikoak emandako administrazio egintza bat. Administrazio errekurtsioak aurkezteko eskubidea gauzatzeko, kalifikazioak berrikusteko eta erreklamatzeko prozedurak txertatzen dituzte unibertsitateek ikasleen ebaluazioaren araudietan. UPV/EHU, prozedura horiek jaso dira graduiko ikasleen Ebaluaziorako Arautegiaren 18-24. artikuluetan. Arautegi horren 18. artikulua araberan, *"behin-behineko kalifikazioa argitaratzean, kalifikazioa irakasgaiaren ardura duen irakasle edo koordinatzailearekin berrikusteko eguna, tokia eta ordua zehaztu behar da. Horri gehitzen dio: ikasle bakoitzak eskura izango du dagokion ebaluazio proba; horrez gain, lortutako kalifikazioari buruz eman beharreko azalpen guztiak emango zaizkio ikasleari, ahoz"*.

Beraz, arauak onartzen du azterketa berrikusteko unean hura eskura edukitzeko ikasleek duten eskubidea, baina ez du zehazki aipatzen azterketaren kopia lortzeko eskubidea. Omisio horren aurrean, jo behar dugu Espainiako Konstituzioaren 105.b artikulura, herritarrei artxibo eta erregistro administratiboak eskuratzeko eskubidea aitortzen diena, eta Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko 19/2013 Legea eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legea, dokumentazioa eskuratzeko eskubidea bermatzen dutenak.

19/2013 Legearen lehenengo xedapen gehigarriak dio: *“Abian den administrazio prozedura batean interesdun direnek prozedura hori osatzen duten agiriak eskuratzeari aplikatzekoa zaion araudia izango da, hain zuzen, dagokion administrazio prozedura arautuko duen araudia”*.

UPV/EHUn kalifikazioak ebaluatzeko eta berrikusteko prozeduraren araudiak ez du aipatzen azterketaren kopia eskuratzeko eskubidea, baina horrek ez du esan nahi aplikatu ezin direnik ordenamendu juridikoak administrazio prozedura batean interesdunak direnei ematen dizkien bermeak. 39/2015 Legearen 53.1.a) artikulua, 2.c) artikulua araberako Unibertsitate Publikoari ordezko gisa aplikatzekoa denak, hauxe dio: *“Lege honetan aurreikusitako gainerako eskubideez gain, administrazio prozedura batean interesdun direnek honako eskubide hauek dituzte: a) Noiznahi jakitea interesdun diren prozeduren izapidetzea nola doan; administrazio isiltasunak zer esanahi duen, Administrazioak ez badu epean ebazpen espresurik ematen ez jakinarazten; zer organo den eskudun instrukzioa egiteko, hala badagokio, eta ebazpena emateko; eta zer izapide egintza eman dituen. Eskubidea izango dute, orobat, prozeduretan jasotako dokumentuak eskuratzeko eta haien kopia lortzeko”*.

Ikasleen ebaluazio prozeduran, prozedura amaitzen duen administrazio egintzat hartzen da irakaslearen aurrean eginiko berrikuspenaren ondoren aktan jasotzen den kalifikazioa, eta berrikusi egin daiteke administrazio bidean, ebaluazio arautegiaren 22-24. artikuluen arabera. Ikasleek interes legitimoa dute prozedura horretan eta, *“interesdun”* diren aldetik, eskubidea dute, 53.1. artikulua araberako, prozedura horretako dokumentuak eskuratu eta haien kopia lortzeko. Gai hau ez da eztabaidatzen Oinarrizko Hezkuntzan, non Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2008ko uztailaren 7ko Aginduak, Oinarrizko Hezkuntzako ikasleen ebaluazioa arautzen duenak (2008ko uztailaren 30eko EHAA), 16. artikuluan, honako hau berariaz adierazten duen lan, proba eta ariketa zuzenduak berrikusteari buruz: *“1.- Ikasleek eta, bestela, haien guraso eta legezko ordezkariak errendimenduaren ebaluazioan eragina izango duten lan, proba eta ariketa guztiak gainbegiratu ahal izango dituzte, eta hala eskatuz gero horien kopia bat ere eskuratu ahal izango dute, behin zuzenduak izan ondoren. Zuzenketa ez da kalifikazio kualitatibo edo kuantitatibo hutsa izango; horrez gain, ikasleak egindako akatsak edo hutsegiteak zein kalifikazioaren azalpen arrazoitua ere jaso beharko ditu. 2.- Bestalde, alegazioak aurkeztu eta kalifikazioen berrikuspena eskatu ahal izango dute. Prozedura ikastetxeek ezarriko dute, berrikuspenak egiteko epeak eta baldintzak adieraziz, eta aintzat hartuz irakasleentzat*

lotesleak direla, curriculum ofizialaz gain, Ikastetxearen Curriculum Proiektua, ikasgela-programazioak eta jakitera emandako kalifikazio irizpideak."

Gure ustez, ikasleen ebaluazioa arautzen duen gure arautegiak azterketen kalifikazioa erreklamatzeko eskubidea aitortzen duen unetik, logikoa da hala eskatzen duenari eginiko azterketaren kopia ematea, zuzenketa zehatz-mehatz aztertzeko eta, erreklamazioa egitea erabakiz gero, aurkeztutako alegazioen oinarri gisa erabiltzeko. Arautegiaren 22. artikulua araberan, irakaslearen aurrean eginiko berrikuspenarekin ados ez dagoenak erreklamazioa aurkeztu ahal izango du saileko zuzendaritzaren aurrean, eta, hor, arloko erreklamazioen batzordeak modu arrazoituan ebatziko du. Dena dela, nekez egin daiteke erreklamazio zehatzik eta egitate zehatzetan oinarritutakorik, baldin eta erreklamazioa egiteko unean ikasleak eskura ez badu zuzendutako azterketa, eta, arrazoi beragatik, nekez emango die ebazpenak erantzun arrazoitu bat desadostasuna eragin duten zioei.

Ildo beretik jo zuen Kataluniako Justizia Auzitegiak azaroaren 27ko 918/2002 epaian, UABko errektorearen erabaki bat baliogabetzen zuena, atzera eramanez azterketa berrikusteko jarduketak interesdunak alegazioak egin aurreko unera arte, uste baitzuen interesdunak eskubidea zuela eginiko azterketaren kopia jasotzeko. Auzitegi horren hitzetan, *"El derecho a disponer de fotocopia del examen realizado se constituye así en un elemento de valoración básico para que el interesado pueda concluir con el imprescindible sosiego y precisión, en primer lugar, sobre la razonabilidad de solicitar la revisión extraordinaria del examen y, en segundo lugar, para que pueda formular con el debido conocimiento de causa las alegaciones que a su derecho convengan"*.

Horregatik guztiagatik, aldeleari eginiko kontsultari erantzunez, esan daiteke azterketa berrikustera doazen ikasleek eskubidea dutela, hala eskatuz gero, azterketa zuzenduaren kopia jasotzeko.

Irakasleek kopia entregatzeko betebeharrari dagokionez, kontuan izan behar da sailen eta ikastegi funtzionamendua antolatzeke modua, aldeak egon daitezkeelako batzuen eta besteen artean. UPV/EHUko Ikasleen Ebaluaziorako Arautegiak sailei eta ikastegiei ematen die ebaluazio probak zaintzeko eta gordetzeko eginkizuna. Zehazki, honela dio 16. artikulua: *"Ebaluazio probak eta ahozko proben grabazioak (halakorik egonez gero), gutxien dela hurrengo ikasturtea amaitu arte gorde beharko dira; hala ere, errekurtsorik badago jarrita, errekurtsua ebatzi arte gorde beharko dira. Ikastegiak ezarriko ditu proba horiek gordetzeari buruzko arauak"*. Beraz, sailak izango dira, haien ikastegietan ezarritakoaren arabera, kopiak ikasleen eskura jartzeko modua erabakiko dutenak.

Amaitzeko, gogoratu behar da espediente eskuratzeko eskubideaz baliatzea (APAPELen 53.1.a) datu pertsonalak babesteko araudiarekin (DBEO eta DBLO) bateragarri egin behar dela.

Ebaluazioa egiten duen irakaslearen oharrekin zuzendutako azterketak datu pertsonalak biltzen ditu, ikasleak ez ezik, zuzenketa egiten duen irakaslearenak ere. Hala aitortzen du Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak 2017ko abenduaren 20ko epaian, C-434/16 gaiari buruzkoan, eta honako hau adierazten du:

“⁴⁴ Azterketan izangaiak emandako erantzunei buruz aztertzaileak egindako oharra eduki, helburu eta efektuengatik izangai horrekin lotuta dauden datuak direla egiaztatzea ez da indargabetzen, ohar horiek aztertzaileari buruzko datuak ere badirelako”.

“⁴⁵ Izan ere, datu berberak hainbat pertsona fisikori buruzkoak izan daitezke, eta, beraz, pertsona horietako bakoitzaren datu pertsonalak izan daitezke, 95/46 Zuzentarauko 2. artikuluko a) idatz-zatiaren arabera, betiere pertsona horiek identifikatuak edo identifikagarriak badira”.

Ikasleen azterketek hainbat pertsona fisikori buruzko datu pertsonalak dituzte: ikaslearenak eta irakaslearenak. Datu horien tratamenduak, beraz, datu pertsonalen babesaren arloko printzipioak eta bermeak bete behar ditu, eta, bereziki, datuen tratamendurako legitimazioa. Ikasgaia ebaluatzeko prozeduraren barne, bertako dokumentuetara irismena eskatzen duen ikasleari azterketaren kopia helarazi behar zaio, betiere helburu jakin batzuk betetze aldera, dela bere ikasketa prozesua osatzeko, dela bere kalifikazioa aurkatzeko. Horrenbestez, datu horiek beste helburu batzuetarako erabiltzeak, eta, bereziki, behar den baimenik gabe zabaltzeak, argitaratzeak eta jendaurrean jartzeak Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 72. artikuluan aurreikusitako arau-hausteak ekar litzake, hargatik eragotzi gabe jokabide horretatik erator litekeen diziplina-erantzukizuna.

Beraz, jardunbide egokia litzateke beren azterketaren kopia eskatzen duten ikasleei ohartaraztea informazio horrek hirugarren pertsonari (azterketaren zuzenketa egin dutenei) eragiten dieten datu pertsonalak izan ditzakeela, eta datu horiek irakaskuntza/ikaskuntza prozesurako edo, kalifikazioak erreklamatzeko prozeduran alegazioak, erreklamazioak edo errekursoak planteatzeko soilik erabiltzeko konpromisoa hartzea, eta ohartaraztea prozeduratik kanpoko edozein lagapen edo hedapenak, ukitutako pertsonen baimenik gabe, erantzukizunak eskatzea ekar dezakeela, datu pertsonalak babesteari buruz indarrean dagoen legediaren arabera.

Unibertsitate Bizikidetzaren Legeari buruzko gaiak

Txosten honek hartzen duen aldian, indarrean sartu da Unibertsitate Bizikidetzari buruzko Legea, otsailaren 24koa. Lege berri honek eraldatze ahalegin handi bat exijitzen die unibertsitateei, eta oinarri batzuk ezartzen ditu unibertsitate bizikidetzarako, hura apurtu dezaketen gatazkak konpontzeko modalitate alternatiboak proposatuz.

Unibertsitate bakoitzak bere bizikidetzaren arauak definitu behar ditu, Legearen oinarrien barruan, eta oinarri horiek nahitaz bete beharko dituzte unibertsitateko kide guztiek, banakako jarduketari nahiz kolektiboari dagokienez. Legearen arabera, UPV/EHUren bizikidetzaren arauak egiteko, unibertsitate sektore guztiei entzun behar zaie, eta denek parte hartu behar dute, beren ordezkari organoen bitartez, beste partaidetza edo kontsulta modu batzuk baztertu gabe. Jakin badakit, idazkari nagusiak hala jakinarazi didalako, hastear delako UPV/EHUren bizikidetzaren arautegia garatzeko prozesua. Ikasleen Kontseiluak ere bere interesa adierazi dit arautegi horren lanketan parte hartzeko.

Bizikidetzari buruzko legeak aldatu egin du ikasleen diziplina araubidea eta esan daiteke legeak zor historiko bat kitatu duela, ikasleak zirelako Konstituzio aurreko diziplina araubide baten pean zegoen unibertsitate kolektibo bakarra, 1954ko Diziplina Arautegia, helburutzat zuena ordena publikoa eta disidentzia politikoa kontrolatzea, Estatu diktatorial bati zagozkion moduan. Aurreko urteko txostenetan esan izan dugun moduan, arautegi zaharrak anakronikoki eusten zion zigorrean soilik oinarritutako sistema bati, zigortutako gertakariekin alderatuta neurrigabeak ziren zehapenekin eta legezketasun printzipioaren gutxieneko bermeak betetzen ez zituen zehapen prozedura batekin. 2022ra arte, zehapenei dagokienez, irakasle-ikertzaileak, AZPko langileak eta unibertsitatekoak ez diren ikasleak baino okerrago egon da unibertsitate ikasleen kolektiboan.

Egoera hori aldatu egin da indarrean sartu denean Bizikidetzari buruzko Legea, zeinaren II. tituluak ikasleei aplikatu beharreko diziplina araubidea zehazten duen. Jarraian, diziplina ahalari eta hura gauzatzeko prozedurari buruzko zenbait gai aipatuko ditugu.

a) Diziplina erantzukizunaren esparrua

Diziplina arloan, hainbat gai izan ditugu 2022an. Horietako bat izan da unibertsitate diziplina erantzukizunaren konfigurazioa. Planteatu zitzaizgun unibertsitateko kide batek WhatsApp bidez ustez eginiko adierazpen antijuridiko batzuen kasua (unibertsitateko beste kide batzuek izan zuten horien berri). Hori horrela, ulertu genuen Bizikidetzari buruzko Legearen 9. artikulua unibertsitate jurisdikziotik kanpo uzten zuela diziplina erantzukizunaren konfigurazioa (hau da, Aldezlearen bulegoaren jurisdikziotik kanpo). 9. artikulua unibertsitate publikoetako ikasleen diziplina erantzukizuna aurrekonfiguratzen du, soil-soilik "unibertsitatearen instalazioetan, sistemetan eta espazioetan garatutako jarduerari dagokionez". Unibertsitatearen "sistemak" izango lirateke unibertsitatearen komunikazio sistemak, eta hortik kanpo geldituko lirateke unibertsitatekoak ez direnak; hala nola WhatsApp.

b) Faltak tipifikatzeari buruzko auziak: irainak

Kontsultatu den beste gai bat izan da arau-hausteen tipifikazioari buruzkoa; bereziki, ea unibertsitateko diziplina prozedura bat ireki daitekeen ikasle batek irakasle bat iraintzeagatik.

Dakigunez, diziplina ahala bi printzipioen mende dago: legezatasun printzipioa (Lege erreserba) eta tipikotasun printzipioa (*lex previa* eta *lex certa*). Diziplina araubidea, azken batean, zehapen araubide bat da, eta aplikatzen da Administrazioari modu berezian lotuta dagoen pertsona talde batean, administrazio antolamenduaren beraren parte direlako edo Administrazioak emandako zerbitzuen onuradun direlako. Lotura berezi horrek justifikatzen du diziplina araubide berezi bat. Nolanahi ere, Konstituzio Auzitegiak zehaztu duen bezala (STC 61/1990), pertsona horiek administrazioarekin duten lotura bereziak ez du ezabatzen edo salbuesten legezatasun printzipioa. Gaur egun, lege estaldura eskatzen da beti zehapena ezarri ahal izateko; hau da, falta edo arau-haustea jasota egotea *lege mailako* arau batean. Konstituzioaren 25.1 artikulua oinarritzko eskubide gisa jasotzen du: *“Ezin da inor kondenatua edo zigortua izan ekintza edo usteengatik, berauk egiteko unean delitu, huts edo administrazio arau-hausteak izan ez badira, une hartan zutik dirauen legearen arabera”*.

Bada, 1954ko Diziplina Arautegi zaharrarekin ez zegoen arazorik irakasleenganako irainak edo kalumniak zehatzeko. *“Difamazioaren”* edo *“probitate falta”* izenekoaren konfigurazio zabalak aukera ematen zuen mota honetako ia edozein jarduera zehatzeko. Probitate falta definienezake honela: unibertsitateko kideek ustez izan behar duten zintzotasun edo integritaterik ez izatea.

Gaur egun, Bizikidetzari buruzko Legea indarrean sartu ondoren, zehapena jarri ahal izateko, arau-haustea Legean behar bezala zehaztuta egotea eskatzen da. Kontsultara itzulita, ikus dezakegu irainak gehienez ere barne har ditzaketen arau-hauste tipifikatuak izango liratekeela arau-hauste oso astuntzat hartzen direnak 11.a artikuluan (jarduera iraingarriak) edo 11.b artikuluan (indarkeria larria). Arau-hauste astunen eta arinen zerrendetan ez dago irainak sartzeko moduko kasurik. Hona hemen zer dioten Bizikidetzari buruzko Legearen 11.a eta 11.b artikuluek:

“a) Realizar novatadas o cualesquiera otras conductas o actuaciones vejatorias, física o psicológicamente, que supongan un grave menoscabo para la dignidad de las personas”.

“b) Acosar o ejercer violencia grave contra cualquier miembro de la comunidad universitaria”.

Hortaz, lehen begiratuan, irudi luke artikulua horiek ez daudela pentsatuta irain edo laidotarako, ikuspegi penaletik zigor daitezkeenak astuntzat joz gero, irain arinak izan ezik, emakumeen aurkako indarkeria kasuetan (Zigor Kodearen 208. artikulua). Gainerako irain arinak ez dira delitutzat hartzen, nahiz eta bide zibiletik

eska daitekeen erreparazioa. Hori horrela, zer gertatzen da unibertsitate diziplinaren alorrean? Diziplina espediente bat zabal daiteke irainengatik?

Gure ustez, (ahozko) indarkeria larria izan litezke, baina zalantzak ditugu irain edo hitz peioratibo guztiak indarkeria larritzat har ote daitezkeen. Edonola ere, zigortu ahal izateko, indarkeria "larria" izan behar du, indarkeria arina ez dagoelako tipifikatuta Bizikidetzari buruzko Legean.

Azken batean, zehaztapen handiagoa falta da arau-hauste jakin batzuen tipifikazioan; kasu honetan, adibidez.

Hori horrela izanik, galdera litzateke zer egin dezakeen UPV/EHUK gai honi dagokionez. Argi dago unibertsitateek ezin dutela arau-hauste mota berririk ezarri, ez litzatekeelako beteko legezatasun printzipioa. Unibertsitateek ez dute legerik onartzen. Hala ere, Bizikidetzari buruzko Legearen 10.2 artikulua araberan: *"las universidades, reglamentariamente, podrán introducir especificaciones o graduaciones a las infracciones que, sin constituir otras nuevas, ni alterar la naturaleza o límites de las que la ley contempla, contribuyan a la más correcta identificación de las conductas, respetando los principios de la potestad sancionadora"* (véase también el artículo 142 LC para las sanciones). En consecuencia, *cabría introducir especificaciones o graduaciones en atención a la intensidad de la conducta, sobre la base de los criterios que determine los colectivos de la comunidad universitaria que han de participar en el proceso de redacción de la normativa de convivencia"*.

c) Iruzur akademikoari erantzuteko modua

Planteatu zaigun auzia honako hau da: baldin eta iruzur akademiko bat egiten bada, kontuan izanik Bizikidetzari buruzko Legea, nolakoa izan behar du unibertsitatearen erantzunak? Diziplinarioa? (dagokion diziplina espedientea zabaltzeko eskatuta, alegazioekin, etab.) Akademikoa? Bi eratakoa? Beste modu batean esanda, 0 kalifikazioa eman dakioke automatikoki iruzur egin duen ikasleari Bizikidetzari buruzko Legeak aurreikusitako diziplina prozedura izapidetu gabe?

Lege horrek hainbat modutan tipifikatzen du iruzur akademikoa, kasuen arabera:

-GRAL, MAL edo doktorego tesietan eginiko iruzurra: falta OSO ASTUNA (11.g artikulua).

- Gainerako kasuetan: FALTA ASTUNA (12.d artikulua).

Kontuan hartu behar dugun lehen gauza da iruzur akademikoaren lege definizioa. Legearen 11 g) artikulua honela definitzen du:

"Se entenderá como fraude académico cualquier comportamiento premeditado tendente a falsear los resultados de un examen o trabajo, propio o ajeno, realizado como requisito para superar una asignatura o acreditar el rendimiento académico".

Definizio horrek era konplexu batean ezaugarritzen du iruzur akademikoa. Ezaugarri hauek nabarmenduko genituzke:

- Iruzurra aurretik pentsatutako zerbait da.

- Helburua da azterketa edo lan baten emaitzak faltsutzea. Hau da, azterketa nork bere kabuz ginez gero lortuko litzatekeen emaitza faltsutzea.

- Nork bere lanean edo beste pertsona batenean gerta daiteke. Funtsezkoa ez da nork egin duen iruzurra, iruzurra egin izana eta lana aurkeztea baizik. Erruduntasuna sortzen da lana aurkezteko unean.

- Lege definizioak dio iruzur akademikoa egin behar dela irakasgaia gainditzeko betekizun gisa (*"como requisito para superar la asignatura"*). Interpretazio nahaspilatsua duen esaldi bat da. Ez dago argi *"requisito"* hitzaren esanahia, ezin baita parekatu *"-eko helburuz"* (*con la finalidad de*) edo *"-eko asmoz"* (*con la intención de*) esapideekin. Iruzurra egin bada azterketaren zati batean eta iruzurrik egin ez den zatia nahikoa bada hura gainditzeko, iruzurra existituko litzateke, baina, bat letorke hori lege definizioarekin? Kasu horretan, har daiteke iruzurra *"betekizuntzat"* irakasgaia gainditzeko?

Aldezlearen gomendioa da UPV/EHUK landu behar dituen bizikidetzara arauak zehaztasun handiagoz jokatzea, ziurtasun handiagoa izateko eta zigortu ezin diren jokabideak (eta zigortzea merezi dutenak) zigortu ahal izateko.

Gaur egun badira hainbat protokolo, ebaluazio probetan eta lan akademikoetan jokabide makur eta iruzurrezkoak eragozteari eta etika akademikoari buruzkoak. Erregelamendu mailarik gabeko protokoloa dira eta iruzurrezkotzat edo makurtzat hartzen diren jokabideak zerrendatzen dituzte. UPV/EHURENAK jokabide hauek aipatzen ditu:

"a. Lanak plagiatzea, hau da, inoren lanak kopiatzea jatorria edo iturria aipatu barik eta norberarenak balira bezala ematea ebaluazio akademikorako aurkezten diren testu edo lanetan.

b. Banaka egin behar den ebaluazio proba batean ikaskideei kopiatzea edo haiei informazioa ematea.

c. Azterketa batean edo ebaluazio proba batean beste ikasle bat ordezte, edo norbera beste inork ordeztu dezan onartzea eta adostea.

d. Ikasgelan sartzea edo erabiltzea ebaluazio proba egin bitartean debekatua dagoen materiala.

e. Proba egin aurretik galderak edo kasu praktikoak edo haien erantzunak iruzurrez lortzea, zeinahi baliabidez.

f. Kalifikazioak edo haien aktak legez kontra manipulatzeko edo aldatzeko, zehazki baliabidez.

g. Azterketa edo proba batean uko egitea norbere burua identifikatzeko edo azterketa edo proba entregatzeko, irakasle arduradunak hala eskatzen dionean.

h. Jardun akademikoak eta haren ebaluazio prozesuak gobernatzen dituzten arauen kontrako beste edozein jokabide".

Iruzur akademikoaren ezaugarri nagusia da ikasleak bere errendimenduaren ebidentzia gisa aurkeztea egiazki berea ez den produktu bat. Iruzur akademikoak da jokabide makur eta ez-etiko bat, askotariko kasuak har ditzakeena: idatzizko azterketa edo probetan kopiatzea, testuez bidegabe jabetzea, egile eskubideak urratzea, nortasuna ordeztea, lan akademikoak erostea eta saltzea... Dena dela, aldezearen iritzian, zalantzarik da iruzurraren barruan sartzea, adibidez, uko egitea nor bere burua identifikatzeko edo azterketa entregatzeko, Protokoloak ezarri bezala (g letra). Har daitezke unibertsitatean eginiko arau-haustetza, baina ez iruzurtza (iruzur zantzutza, asko jota).

Edonola ere, hemen sortzen den arazo nagusia da nola erantzun iruzurrari. Nola jokatu iruzurraren aurrean? Bizikidetzari buruzko Legea mugatzen da iruzurrezko jokabideak tipifikatzera, eta exijitzen du martxan jartzea diziplina prozedura, zigortu ahal izateko (18.a artikulua: "En ningún caso se podrá imponer una sanción sin que se haya tramitado el necesario procedimiento"), baina ez du argibiderik ematen horren eta neurri akademikoaren arteko bateragarritasunari buruz.

Auzitegi Gorenak, 2000ko abenduaren 15ean emandako epaian, adierazi zuen suspentsoa uler daitekeela matrikula galtzeko zehapenaren (1954 EDren 12. artikulua) neurri osagarri gisa. Hau da, Auzitegi Gorenak zehapenaren bidea hartzen du, ez bide akademikoak. Nolanahi ere, ez dago gai honi buruzko jurisprudentzia eztabaiaezinik.

Arazoa hau da: ikasle bat harrapatzen bada kopiatzen eta 0 nota jartzen bazaio, berehala eta izapidetik gabe hartutako zehapentzat har daiteke? Dagokion diziplina prozedura izapidetu gabe ezarritako zehapentzat?

UPV/EHUren Ikasleen Ebaluaziorako Arautegiak suspentsoa aurreikusten du azterketa batean kopiatu egin dela frogatzen bada. Galdera izango litzateke: kasu horretan, zerbait ebaluatzen da? Edo egiten dena da ondorio batzuk ezarri, zigor litezkeenak, baina modu automatikoan.

Aldezearen ustez, bi arloak zedarritu behar dira: arlo akademikoak eta arlo zigortzailea, bi-biak bateragarriak izanik.

Arlo akademikoari dagokionez, Aldezeak gomendatzen du irakasleak iruzurra aztertzea eta ikuspegi akademikotik baloratzea. Aldezearen ustez, azterketetan eginiko iruzurrak eragindako suspentsoa ez da zertan hartu diziplina zehapen administratibotzat edo zehapen nagusiaren neurri osagarritzat (Auzitegi Gorenak

adierazitakoaren harira). Ikasle batek kopiatu egin badu, haren errendimenduaren ebaluazioa ezin izan daiteke positiboa, negatiboa baizik: hots, suspentsoa.

Suspentsoa da kalifikazio akademikoko administrazio egintza bat (errendimendu akademikoa ebaluatzeko administrazio ahala erabiliz emandakoa). Ikasleak iruzur egiten duenean, agerian uzten du errendimendu akademiko desegoki bat, eta haren kalifikazioak suspentsoa izan behar du, baina hori ez da zehapena.

Iruzurrari emandako erantzun akademikoak bateragarria izan behar du zehapen bidearekin. Gauza bat da probaren kalifikazioa eta beste bat dagokion diziplina prozedura izapidetuta ezer litezkeen balizko zehapenak, ustez iruzur egin duen pertsonak alegazioak aurkezteko duen eskubidea bermatuta. Esan dugunez, Unibertsitate Bizikidetzari buruzko Legeak modu batean edo bestean tipifikatzen du iruzur akademikoa, iruzurra egin den lan motaren arabera. Tipifikazio horren arabera, diziplina prozedura bat aplikatu behar zaio iruzurrari, alde batera utzirik suspentsoaren edo dagokion kalifikazio akademikoa, eta zehapena izan daiteke: *"Pérdida de derechos de matrícula parcial, durante un curso o semestre académico"* (Bizikidetzari buruzko Legearen 143.b artikulua), baldin eta oso astuntzat jotzen bada, edo *"Pérdida del derecho a la convocatoria ordinaria en el semestre académico en el que se comete la falta y respecto de la asignatura en la que se hubiera cometido"* (144.b artikulua), falta astuna bada.

Azken ohar gisa, nabarmentzekoa da azken zehapen horren irismena (falta astunetan aplikagarria) ez dagoela ere oso argi. Lehenik eta behin, UPV/EHUren egutegi akademikoak lauhilekotan banatzen du ikasturtea, ez seihilekotan, Bizikidetzari buruzko Legeak adierazi bezala. Bigarrenik, iruzur akademikoa gertatzen bada (lauhilekoan edo) seihilekoan eginiko proba, lan edo jarduera batean, zehapenak galarazi egingo lieke ikasleei seihileko zehatz horretako amaierako probara aurkezteko eskubidea. Dena dela, zalantza sortzen da iruzur akademikoa gertatzen denean lauhileko/seihilekoaren amaieran egin beharreko amaierako proban. Izan ere, zehapena honela deskribatzen da: *"pérdida del derecho a la convocatoria ordinaria en el semestre académico en el que se comete la falta y respecto de la asignatura en la que se hubiera cometido"*. Arau-haustea gertatzen bada ohiko deialdiaren amaierako proban: zein litzateke zehapenaren irismena? Badirudi arauak arau-haustea izan den seihilekoko deialdira mugatzen dituela haren aldi baterako ondorioak, hurrengo deialdira iritsi gabe. Ezohiko deialdirako eskubidea galtzea lege estalduratik kanpo geratuko litzateke arau-hauste astunen kasuan. Hau da, arau-hauste astuna izanik, zehapenak ez lioke eragingo ezohiko deialdira aurkezteko eskubideari. Hala eta guztiz ere, arau-hauste oso astuntzat hartzen bada, zehapenak mugatu egingo du ezohiko deialdira aurkezteko aukera.

Horrenbestez, litekeena da aurretik aipatutako gaiek sortutako zalantzak, baldin eta arrazoizko modu batean agitzen ez badira, galga izatea diziplina prozedurak irekitzeko. Izan ere, unibertsitate agintariak beren buruari galdetuko diote zertarako ireki diziplina prozedura bat ezinezkoa izango bada betetzea ezar litekeen zehapena (iruzur kasua –arau hauste astuna– amaierako ebaluazio proban, zehapena izanik

ohiko deialdirako eskubidea galtzea arau-haustea egin den sei hileko akademikoan, arau-haustea egin den irakasgaian).

Pentsa dezakegu hobe dela beti ez irekitzea zehapen prozedura, ahazturik prozedura hori dela, funtsean, berme bat administratuarentzat, aukera izango duena bere eskubide guztiak baliatzeko, froga baliabideak erabiltzeko, aholkulari baten laguntza izateko, alegazioak egiteko eta, kontrakoa frogatzen ez den artean, erantzukizun administratiborik ez izatearen presuntzio printzipiotik abiatzeko... indar berberetz aplikatzen ez diren bermeak erantzuna zuzeneko eta soilik akademikoa denean.

d) Prozedura akademikoen eta zehatzaileen konkurrentzia

Esan dugun bezala, iruzur akademikoa egiten bada, adibidez, ebaluazio proba batean, bi administrazio prozedura izango ditugu aldi berean: bata akademikoa eta beste zehatzailea.

Kasu horretan, bigarren prozedura (diziplina arlokoa) ez da eroriko *bis in idem* printzipioan, lehenengoa, gure interpretazioaren arabera, ez delako zehatzailea. *Non bis in idem* printzipioa honela formulatzen da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 31. artikuluan: "*Ezingo dira zehatu zehapen penala edo administratiboa jaso duten egitateak, subjektua, gertakaria eta funtsa berberak direla ikusten den kasuetan*".

Non bis in idem printzipioa da herritar guztiek duten bermea ez izateko bi aldiz zigortuak egitate zigorgarri beragatik. Hala eta guztiz ere, kasu honetan, lehenengo prozedura (kalifikazio prozedura administratiboa) ez da zehapena, eta ezin esan daiteke, beraz, zehapen bikoitza jasotzen dela egitate beragatik. Kalifikazio bat da (suspentsoa), administrazio prozedura baten bidez eginikoa, kontrakotzat har daitekeena, baina ez da zehapena.

Dena dela, nahiz eta ez izan *bis in idem* kasu bat, oso estua izango da bi prozeduren arteko erlazioa (akademikoa eta zehatzailea), eta komenigarria izango da zehaztea loturarik badagoen bien artean, eta, halakorik egonez gero, zer neurritan eragingo dion prozedura baten emaitzak besteari.

Kontua da organo akademiko eskumendunak iruzur akademikoa egon dela ebatzi ondoren suspentsoa jaso duen ikasleak aukera izango duela bere kalifikazioa irakaslearen aurrean berrikustea eskatzeko, ondoren erreklamazioa aurkezteko, dagozkion batzordeen aurrean, eta, azkenik, atzera botatzen badiote erreklamazioa, errektorearen aurrean gorako errekurtsioa jartzeko. Hortaz, berrikuspenean edo erreklamazioan alegatzen dena baldin bada ez dela iruzur akademikorik egon, ez dela iruzurra behar bezala akreditatu edo ez dela ikaslearen erantzukizuna egiaztatu, orduan planteatu liteke, hipotesi gisa, alegazio horri harrera ematea saileko edo ikastegiko Erreklamazio Batzordeak (edo errektoreak, errekurtsioaren ebazpenean). Horrek bi ondorio izango lituzke: alde batetik, atzera bota beharko litzateke

kalifikazioa eta beste bat ezarri; bestetik, xederik gabe geldituko litzateke iruzur akademikoagatiko diziplina prozedura. Kasu horretan, artxibatu egin beharko litzateke prozedura zehatzailea, bertan behera gelditzeagatik haren xedea.

Eta alderantziz, diziplina prozedurak eragina izan dezake ere aurretik hartutako erabaki akademikoan. Demagun hipotesi hau: ikasle batek suspentsoa jaso ondoren azterketa batean iruzur egiteagatik, diziplina prozedura ireki zaio, ulerturik iruzur akademikoa egin duela, Unibertsitate Bizikidetzari buruzko Legearen 12.d artikuluan tipifikatutako jokabidea. Kasu horretan, errektoreak izendatutako instruktoreak abian jarriko du dagokion diziplina prozedura, aintzat harturik independentzia, autonomia eta gardentasun printzipioak (legearen 8.2 artikulua). Bada, instrukzioaren ondorioz, gerta daiteke instruktoreak ez ikustea falta zantzurik, edo ezin zehaztea faltaren ardura izan dezaketen pertsonen nortasuna edo erantzukizuna, eta kasu horretan espedientea artxibatzea proposatuko dio prozedura ebatzi behar duen organoari. Hori gertatuz gero, errektoreak (edo hark eskuordetutako pertsonak) erabakiko du prozedura amaitzea eta jarduketak artxibatzea. Aldezlearen iritzian, diziplina prozedura amaitzeko erabakiak eragina izango du aurreko erabaki akademikoan, bai hura hartu duen agintariari dagokionez (hierarkian gorago dagoena) bai izapidetu den prozedurari dagokionez (diziplina prozedura osoagoa eta dokumentatuagoa delako), kontuan hartu beharko bada ere prozeduraren ebazpenaren edukia. Hortaz, eduki horren arabera, bi aukera ditu zehapen organoak:

a) Egotzitako gertakizunak gertatu ez direla ebaztea: kasu horretan, baliogabetu egingo da aurretik hartutako erabaki akademikoa.

b) Erantzukizuna akreditatu ez dela ebaztea, bai ordea iruzur akademikoa: hala, artxibatu egingo da diziplina espedientea, uste badugu ere horrek ez duela eragingo aurretik hartutako erabaki akademikoan.

Aurretiazko jarduketak eta zehapen prozedurak

Inoiz, espedienteren batean, ikusi ahal izan dugu kasu batzuetan alde aurreko informazio faseak edo aurretiazko jarduketak egin direla eta, ondoren, zehapen prozedurak ireki.

Aurretiazko jarduketak araututa daude Administrazio Prozeduraren 39/2015 Legearen 55. artikuluan. Honako hau dio: "1. *Prozedura hasi aurretik, eskumena duen organoak informaziorako edo aurretiazko jarduketarako aldi bat ireki dezake, kasuaren inguruabarrak zein diren eta prozedura hastea komeni den jakiteko. 2. Zehapen prozeduren kasuan, aurretiazko jarduketan bitartez, ahalik eta zehaztasunik handienarekin ikusi behar da zein egitate izan daitezkeen prozedura hasteko arrazoi, nor edo nortzuk izan daitezkeen erantzule, eta zer inguruabar adierazgarri dituzten batzuek eta besteek. Aurretiazko jarduketak egiteaz, gaia aztertzeke, ihertzeke eta ikuskatzeko eginkizunak esleituak dituzten organoak arduratuko dira, eta, halakorik ezean,*

prozedura hasteko edo ebazteko eskumena duen organoak erabakitzen duen pertsona edo administrazio organoa".

Administrazio prozedurari buruzko legerian jasota dago aurretiazko fase hau irekitzea prozedura formalki hastean, eta haren funtzioa da zehapen prozedura hasteko erabakia behar bezala oinarrituta egotea, prozedura hastea justifikatzen duten arrazoi sendoetan.

Berez, jarduketa hauek har daitezke pertsonen posizio juridiko-subjektiboak bermatzeko tresnatzat, funsgabeko zehapen prozedurak irekitzea mugatuz.

Hala ere, saihestu behar den arriskua da jarduketa horiek beren helburu legitimotik harago joatea eta prozeduraren barruan, ez prozeduratik kanpo, egin beharko liratekeen eginbideak egitea. Izan ere, aurretiazko jarduketak egiten dira prozedura hasi aurretik, eta azken horren bermeez ez dute haiengan eraginik. Era berean, prozeduraren iraungitze epea (6 hilabetekoa zehapen prozeduren kasuan) ez da zenbatzen hasiko prozedura formalki hasi aurretik.

Gure ustez, aurretiazko jarduketan iraupen gehiegizkoa eta bidegabea ez dator bat administrazio onerako eskubidearekin, bermatu egin behar den eskubide erreal eta efektiboa eta, hala badagokio, Aldezleak babestu behar duena. Aurretiazko jarduketan helburuak haien funtziora mugatu behar du espezifikoki eta, beraz, laburrak izan behar dute eta ez dute gainditu behar haien jardun eremu zehatza, instrukzio jarduketak behar besteko bermerik gabe aurreratuz.

Irakaskuntza bosturtekoak aitortzeko txostenetarako irizpideak

2021eko txostenean aipatu genuen gai hau, berriz ere planteatu zaiguna 2022an. Bosturtekoak edo irakaskuntza merezimenduengatik osagarriak aitortzea unibertsitate irakasleen ordainsariaren elementuetako bat da. Unibertsitateak bosturtekoen deialdiak egiten ditu urtero, bai karrerako funtzionarioentzat bai lan kontratudun irakasleentzat, Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetzaren erabaki bidez. Erabaki horiek ezartzen dituzte bosturtekoa lortzeko baldintzak, aldekoa izan behar duen sailaren txostena barne, baina ez dituzte zehazten sailek txostenak idaztean kontuan hartu behar dituzten irizpideak. Ez dago jakiterik zer bete behar den txostenak izan daitezen positiboak edo negatiboak. Gaur egun, sail bakoitzak bere irizpideak ditu eta sailari atxikitako irakasleei aplikatzen dizkie, eta alde handiak daude sail batetik bestera. Alde batera utzirik sor daitezkeen konparazio bidegabekeriak, arreta handia jarri beharko litzateke zenbait irizpide aplikatzeak sortzen dituen arazo juridikoetan, eskubideak muga baititzakete atzeraeraginez (ezarri baino 5 urte lehenago eginiko jarduera). Edonola ere, oraindik ez da egin aurreko txostenean gai honen inguruan proposatu genuen gogoeta.

Hortaz, egungo egoeran, abiapuntutzat hartu behar da Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetza dela bosturtekoa eman edo ez erabaki behar duena,

deialdiaren egilea dena, oinarri hartuta, hala badagokio, deialdian bertan edo deialdia ahalbidetzen duen arategian jasotako irizpideak. Saileko Kontseiluaren txostena nahitaezko eta beharrezko txosten bat da, baina oinarriek ez dute esaten loteslea denik eskaera ebatzi behar duenarentzat. Izan ere, oinarriek ez dituzte ezartzen agintari eskumendunek bosturtekoa eman edo ukatzeko erabakia oinarritzeko erabili behar dituzten irizpideak. Irizpide horiek sartu izan balira deialdien oinarrietan, jarraibide gisa erabili ahal izango lituzke sailak bere txostenean, baina zoritxarrez ez da halakorik gertatzen.

Deialdiek diote sailak arrazoitu egin behar duela bere txostena, kontrakoa denean, eta, behar bezala arrazoitzeko, zentzuzkoa dirudi aurretik irizpide batzuk ezartzea. Edonola ere, kontuan hartu behar da gauza bat dela sailak bere txostena funtsatzeko irizpide batzuk ezartzea, eta beste gauza bat dela irizpide horiek dagokion Errektoreordetzak onartzea bosturteko eskaerak onartzeko edo ukatzeko unean.

Horiek horrela, sailaren irizpideak izan daitezke gutxi-asko arrazoizkoak, baina kontua da haien aplikazioak ondorio erlatibo samarra izango duela Errektoreordetzak bosturtekoa onartzeko edo ukatzeko hartutako erabakian, organo horri baitagokio erabakitzea bere irizpideak erabilita. Beste hitz batzuekin esateko, sailak kontrako proposamena egin arren, sailaren irizpideak ez betetzeagatik, hori ez da arrazoi bosturtekoak automatikoki ukatzeko. Txostena kontuan hartu behar da, jakina, baina ez da loteslea Errektoreordetzarentzat, bere irizpideen arabera erabaki beharko duena.

Deialdia egiten duenari dagokio irakaskuntza merezimenduak eskatzeko eta lortzeko baldintzak ezartzea, eta deialdian finkatu behar dira, halako moldez, non deialdira aurkeztuko den pertsonak jakingo duen baldintzak betetzen dituen ala ez. Hori horrela, aurretik gomendatutakoa berretsiz eta gai honen inguruko gatazka txikitzeko, Aldezleak gomendatzen du gogoeta prozesu bat abiatzea agintari akademiko, sailatako zuzendari, sindikatu eta ikasleen ordezkariekin, aztertzeko zer irizpide exijitu edo aplikatu beharko lituzketen oro har (edo gehienez) sailek aplikatzekoa den arategiak aipatzen duen txostena idazteko orduan.

Fakultate eta eskolen espazioak lagatzeko irizpideak

2022an bulegoari planteatutako kasu batean, ikastegi batek uko egin zion bere areto bat solasaldi dibulгатibo baterako lagatzeari. Eskaera irakasle-ikertzaile batek egin zuen eta solasaldia LGTBI mugimenduari buruzkoa zen. Fakultateak, esan bezala, uko egin zion ekitaldia bere instalazioetan egiteari.

Gai honi dagokionez, Aldezlearen gomendioa da ikastegiekin irizpide batzuk ezartzea beren instalazioak eta aretoak hainbat eratako ekitaldiak egiteko lagatzeko, unibertsitate campusek egiten duten modu berean (barne eta kanpo espazioak unean-unean erabiltzeko erregelamenduak dituzte). Beraz, kontua litzateke, irizpide horien bidez, zuzendaritza organoen diskrezionalitatea mugatzea eta berdintasun eta

ez-diskriminazio printzipioetan oinarritu gabeko erabaki bidegabeak eragozte, lehenetsuna emanaz beti unibertsitate zerbitzuaren funtzionamenduari. Adibidez, irizpide horietan ezar liteke unibertsitatean eginiko jarduerak errespetatu eta bateragarriak izan behar dutela, adibidez, honako hauekin: estatutuetan jasotako UPV/EHUren izaera eta helburuak; Giza Eskubideen nazioarteko tresnetan jasotako balioak, eskubideak eta askatasunak; ingurumen balioak; pertsonen duintasuna; UPV/EHUK aldarrikatzen dituen aniztasun, elkartasun, berdintasun eta tolerantzia balioak; diskriminaziorik ezaren printzipioa...

Ikerketa proiektuen gerakinak

Ikerketa proiektu batzuetako ikertzaile nagusiak Aldezlearen bulegora jo zuen adierazteko bi ikerketa proiektutako Baimendutako Gastu Unitateetako (BGU) gerakinek utzi egin ziotela ikertaldearen esku egoteari, eta ez zuela horri buruzko informaziorik. Aldezlearen bulegoak Kontabilitate eta Aurrekontu Gerenteordetzara jo zuen, informazioa eskatzeko aipatutako BGUetan 2021eko ekitaldiko aurrekontua ixtean gauzatzeke zeuden kredituei buruz.

Kontabilitate eta Aurrekontuen gerenteordeak txosten bat bidali zigun, adieraziz proiektu, kontratu edo hitzarmen bakoitza organiko batean gauzatzen dela eta iraupen jakin bat duela. Behin amaituta, funts espezifikokoak geratzen badira soberakin gisa, beste urtebetez egon ohi dira eskuragarri ikertaldearentzat, proiektua ekonomikoki justifikatu eta behin betiko ixteko. Dena dela, urte hori amaituta, arautegia aplikatuz, gerakin espezifikokoak bihurtzen dira UPV/EHUren gerakin orokor.

Planteatutako kasuari dagokionez, interesgarria da gogoraraztea ikertzaileen komunitateari gauzatzeke dauden kredituei aplikatu beharreko araudia. Gai honi dagokionez, UPV/EHUren Estatutuen 233. artikulua aplikatu behar da:

"1. Sarreraren egoera orrian diru iturri guztien nondik norakoak zehaztuko dira, eta haien zenbateko osoari erantsi beharke zaio gerakin orokorra; hau da, aurreko ekitaldiaren kitapenetik sortutako soberakina, behin gerakin espezifikoa kendu ondoren.

2. Honako hauek joko dira gerakin espezifikotzat (eta beraz, kreditua sortuko dute hurrengo ekitaldirako eta hasieran horien esleipendun izan ziren atal funtzionalen esku geratuko dira):

a) Ikerketa proiektu eta azpiegiturarako diren kreditu erabili gabeak.

b) Kanpoko baliabideez hornitutakoak diren eta helburu jakin batzuetarako diren kreditu erabili gabeak.

c) Hartuta dauden baina arrazoi sendoengatik bete ezin izan diren konpromisoen gastuei dagozkien kreditu erabili gabeak.

3. Kredituen gerakin espezifikoek espezifiko izateari utziko diete berez zegokien jarduera amaitu eta hurrengo ekitaldia bukatzean”.

UPV/EHUren Estatutuen 233.2. artikulua ezartzen duenez, ikerketa proiektuei dagozkien eta gauzatzeke dauden kredituak gerakin espezifikotzat hartzen dira, eta, beraz, kreditua sortzen dute hurrengo ekitaldian, saldo gisa ikertaldearen eskura. Dena dela, 233.3 artikulua araberan, behin proiektua amaituta, kredituak esleitu ziren jarduera amaitu eta hurrengo ekitaldia amaitzean, soberakinak uzten dio gerakin espezifiko izateari eta unibertsitatearen gerakin orokor bihurtzen da. Salbuespen modura, gerakin espezifiko gisa mantentzeko, arrazoi justifikatu bategatik bete ezin izan den konpromisoren bat dagoenean. Horregatik, Kontabilitate eta Ondarearen arloko Gerenteordetzak informazioa eskatu zuen organiko horien kontura egin asmo ziren gastuei buruz, eta erantzuna izan zen ez zegoela BGU horien saldoa hurrengo urtera gerakin espezifiko gisa traspasatzea justifikatu lezakeen konpromisorik.

Egoera hau sor dadin saihesteko, aurrekontua ixteko aginduak ekitaldi bakoitzean gogoratzen ditu aurrekontua ixteko prozesua, eragiketa kontable mota bakoitza kontabilizatzeko epemugak, eta jarraibideak ematen ditu gerakin espezifikoak sartzeari buruz.

Era berean, UPV/EHUren Estatutuen 315. artikulua garatzeko arautegiaren (*“Kontratuak arautzea lan zientifiko, tekniko, humanistiko edo artistikoak egin eta espezializazio ikasketak edo prestakuntzarako berariazko jarduerak garatzeko pertsona fisiko edo juridikoekin, unibertsitate edo erakunde publiko eta pribatuekin lankidetzan”*) 26. artikuluan (2008ko ekainaren 5eko EHAA) araututa dago BGUen itxiera eta gerakinen norakoa:

“26. artikulua. – BGUak ixtea eta gerakinaren norakoa.

1.– Kontratuak amaitutakoan dokumentu bat sinatuko da, non eta berroren lan edo zerbitzuaren behin betiko ematea eta jasotzea egiaztatuko diren.

2.– Aurreko dokumentuaren egunetik abiatuta eta hurrengo ekitaldia itxi arte, epea izango da gauzatu gabe dauden diru-sarrerak eta ordainketak bertan behera utzi eta irekia den BGUa ixteko. Kontratuak, berori amaitu ondoren, egindako jarduera bereziak justifikatzen baditu, eta memoria jasota badaude, aipatutako epea jarduera horien gastuak eginez geroztik abiatuko da.

3.– Ekonomia gerakina, horrelakorik egonez gero, gerakin generikoa izango da. Zenbateko hori hurrengo ekitaldian, ahal den heinean, gerakina sortu duen talde, ikastegi, sail, institutu edo nortasun juridikorik ez daukan egitura edo erakundea hobetzeko erabiliko da, edo, bestela, kontratua gauzatu dutenek langune duten UPV/EHUk sortutako egitura hobetzeko”.

Ondorioz, aurrekontu ekitaldia ixtean, unibertsitatearen gerakin generiko bihurtu behar dute aurreko urtean amaitutako kontratu/proiektu/hitzarmenen gerakin ekonomikoek. Ekitaldia itxi aurretik, ikertzaile nagusiak kreditu soberakinetan oinarritutako Proiektu Estrategiko bat eska diezaioke Ikerketaren arloko Errektoreordetzari, adieraziz zer proiektutan erabiliko den kreditu soberakinetatik sortutako finantzaketa eta kreditu soberakina dagoen organiko bakoitzeko finantzaketaren jatorria. Eskaera zuzendu behar zaio Ikerketa Kudeaketaren zuzendariari eta, hura aztertu ondoren, zerbitzuak ebaluatzeko programa bat finantzatzen duten kreditu gerakinen baldintzak betetzen badira, programa hori baimendu eta beste organiko bat sortuko da, soberako kreditua jasoko duena. Hala ere, BGUa ixten bada gerakina kudeatu gabe, gerakin generiko bihurtzen da, UPV/EHUren diru sarreraren aurrekontua osatzen duena eta unibertsitatearen gastuen aurrekontua araudiaren arabera finantzatzeko erabiltzen dena.

Amaitzeko, beste behin eskerrak ematea besterik ez zait geratzen, bai Aldezlearen zerbitzuan konfiantza izan duten pertsona guztiei, bai gure lana eta independentzia errespetatu dituzten unibertsitateko zerbitzu eta agintari akademikoiei.

I. ERANSKINA: 2022ko aztergaien zerrenda

Gakoak

Kolektiboa	Aztergai mota
IK: Ikasleak	KE: Kexa
IRI: Irakasle-ikertzaileak	KO: Kontsulta
AZP: Administrazio eta zerbitzuetako langileak	B: Bitartekaritza
Beste batzuk: UPV/EHUtik kanpoko pertsonak	

Zk.	Kolektiboa	Aztergai mota	Gaia
1385	IK	KO	Zer egin irakaslearen jokabide desegokia dela eta.
1386	IRI	KO	Ikerketa proiektu baten zuzendari aldaketak doktorego ondoko beka batean izan dezakeen eragina.
1387	IRI	KO	Ikasleen kexa baten jomuga den irakasleari entzuteko betebeharra.
1388	IRI	KO	MAL baten zuzendaritzari buruzko informazio okerra zabaltzea.
1389	IRI	KE	Lan egoera arautzeko eskaera baten erantzunik eza.
1390	IRI	KO	Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei eginiko ekarpenen izaera eta araubide juridikoa.
1391	IRI	KO	Ahozko proba baten grabazioa eskuratzeko eskubidea, hautapen prozesu batean.
1392	IK	KO	Laguntza ekonomikoak Eusko Jaurlaritzaren beka bat jasotzeko baldintzak betetzen ez dituzten ikasleentzat.
1393	IRI	KO	Zer egin ikerketa lan original baten defentsan etika zientifikorik ez dagoenean.
1394	IRI	KO	Gorabeherak nominan, lanaldia murriztean erretiro partzialagatik.
1395	IK	KO	Ikasleen eskubideak irakasle faltagatik irakaskuntza eskaintzatik irakasgai bat kentzean (irakasgai horretan matrikulatu ondoren).
1396	IRI	KO	Irakasle-ikertzaileen ordezkoen poltsa baten ebaluazio batzordea eratzeko arazoak.

1397	IK	KO	Eginiko matrikula ofizioz aldatzea, irakasgairen bat eginda izanda ere.
1398	IK	KO	Zer egin ikasle baten adierazpen desegokien aurrean.
1399	IK	KO	Zalantzak ebaluazio berezia eskatzeari eta haren ebazpenari buruz.
1400	IK	KO	Ikasle baten egonezina ikaskideek sare sozialetan eginiko iruzkinengatik.
1401	IRI	KO	Sailean toki bat izateko eskubidea, doktorego ondoko beka bat lortu ostean.
1402	IK	KO	Arazoak graduko irakasgai bat emateko, irakasle faltagatik.
1403	IK	KO	Azterketaren kopia eskatzeko eskubidea, nota berrikusteko.
1404	IRI	KO	Azterketaren kopia eskatzeko eskubidea, nota berrikusteko.
1405	AZP	KE	Justifikazio falta eskatutako lanaldi modalitatea ukatzean.
1406	AZP	KO	Espediente lekualdatzeagatik gradura sartzean salbuespenezko inguruabarrak kontuan hartzeko aukera.
1407	AZP	KE	Desadostasuna euskarazko hizkuntza eskakizunen balorazioan, AZPkoen deialdietan.
1408	Beste batzuk	KO	UPV/EHUra goi mailako kirolari gisa sartzeko baldintzak.
1409	IK	KO	Informazio nahasgarria GAUREn, Erasmus egonaldi jakin bat egiteko hizkuntza baldintzen inguruan.
1410	AZP	KE	Aldi baterako langileei ikastaro baten bertaratze ziurtagiria ukatzea.
1411	IRI	KO	Arazoak irakasgai baten ebaluazioan. Gatazka ikasleekin eta sailarekin.
1412	IRI	KO	Kontratututako ikertzaileak egonkortzeko presazko neurriak.
1413	AZP	KO	Liskarra lankidearekin. Adierazpen xenofoboak.
1414	IRI	KO	Mantsotasuna informatika ekipo baten matxura konpontzean.
1415	IRI	KE	Erantzun arrazoiturik eza UPV/EHUUn emaitza zientifikoak zabaltzeko mugikortasunerako laguntza eskaerari.
1416	IRI	KO	Ordainsariak erregulatzea indarrean dagoen doktorego aurreko kontratu batean.

1417	IK	KE	SICUE eskaera epez kanpo, ustezko akats administratibo bategatik.
1418	IRI	KO	Administrazio espedientearen konfidentzialtasuna. Datuak hirugarrenen esku uzteko eskubidea.
1419	IK	KO	Eskatutako dokumentazioa lortzeko zailtasunak doktorego ikasketak egiteko emandako laguntza batean.
1420	Beste batzuk	KO	UPV/EHUn gradu bat egiteko modalitateak.
1421	IK	KO	Justifikazio falta unibertsitate titulu bat ukatzean.
1422	IRI	KO	Beste irakasle baten salaketari buruzko dokumentazio eskaera.
1423	IRI	KE	Mantsotasuna informatika ekipo baten matxura konpontzean.
1424	IK	KE	Webean informazioa euskaraz lortzeko ezintasuna, izena ematean unibertsitate master batean.
1425	AZP	KE	Arazoak ikastegi bateko teknikari espezialista plaza baten deialdian.
1426	AZP	KO	Erradiadoreak kentzea bulego batetik, abisurik gabe.
1427	IK	KO	Irakasgai batean ebaluazio berezia lortzeko baldintzak.
1428	IK	KE	Erasmus plaza bat esleitzea hizkuntza eskakizuna bete gabe.
1429	IRI	KO	Erretiro partziala hartu duen irakasle batek eman behar dituen kredituei buruzko gorabeherak GAUREn.
1430	IRI	KE	Neurriak eskatzea irakats giro on bat lortzeko UPV/EHUREn ikastegi batean.
1431	IRI	KE	Arazoak saileko irakasle baten irakats lanarekin eta jarrerarekin.
1432	Beste batzuk	KO	Titulu eta ziurtagiri ofizialen kopiak lortzea.
1433	IRI	KE	Arazoak bere doktorego tesian eta bere ikertaldearekin.
1434	AZP	KE	Lanpostuari ez dagozkion funtzioak bete beharra.
1435	AZP	KO	Erabaki bat indarrean dagoen arautegira egokitzea, funtzioak esleitzeko prozeduran.
1436	IRI	KO	Materia akademikoa erabiltzea egilearen baimenik gabe.

1437	IRI	KO	Desadostasuna irakaslan elebidunaren banaketarekin, irakaslana euskara hutsezko kredituekin bete dezakeelakoan.
1438	IRI	KE	Irakasle titular plaza lortu aurretik egiaztatutako seiurtekoen ordainketa ukatzea.
1439	IRI	KE	JAPren arautegia berrikusteko eskatzea, alegazioen epeei dagokienez.
1440	Beste batzuk	KE	Arazoak lan zientifikoaren egiletzarekin.
1441	IK	KE	Azterketaren data ofiziala aldatzeko eskubidea, ikasleen ordezkeri gisa bileretara joan behar izateagatik.
1442	IK	KE	Irakasle baten portaera desegokia ikasle batekin, jendaurrean, irakaskuntza saio batean.
1443	IRI	KE	Erantzun falta lanpostua lekualdatzeari buruzko eskaerari.
1444	AZP	KO	Pertsonal laguntzaileak selektibitateko epaimahaietan parte hartzeko betebeharra.
1445	IRI	KO	Elkargoko kide izateko betebeharra gradu batean irakasteko.
1446	IRI	KO	Zer egin unibertsitatearen instalazioetan izandako ekintza bandalikoaren aurrean.
1447	Beste batzuk	KO	Atzerrian eginiko gradu bateko ikasketak aitortzea.
1448	IK	KO	Azterketaren kopia eskatzeko eskubidea, nota berrikusteko.
1449	Beste batzuk	KO	Klasean entzule gisa egoteko eskubidea.
1450	IK	KO	Irakasgaiaren Irakaskuntza Gidan, hura gainditzeko gutxienezko nota ezartzearen komenigarritasuna.
1451	IK	KE	Irakasle-ikertzaile batek ustez bere betebeharrak ez betetzea, irakaskuntzari, tutoretzei, ebaluazioari... dagokienez.
1452	Beste batzuk	KO	Desadostasuna lan esperientziaren eta curriculumaren puntuazioarekin, 40 urtetik gorakoaren sarbide proban.
1453	Beste batzuk	KO	Unibertsitatean izena emateko epeei buruzko arautegia.
1454	IK	KO	Matrikula ordaintzeko betebeharra, klaseetara joan ez arren.
1455	IRI	KO	Datuak erabiltzea argitalpen zientifiko batean baimenik gabe.

1456	IK	KE	Desadostasuna aurreko ikasturtetik gelditu diren kreditu guztietan matrikulatzeko betebeharrarekin.
1457	IRI	KO	Ikasleari azterketaren kopia entregatzeko betebeharra.
1458	IK	KO	Lan esperientzia aitortzea hautazko kredituak baliozkotzeko.
1459	Beste batzuk	KO	UPV/EHU ezin matrikulatzea NAN iraungita izateagatik.
1460	IRI	KO	Sail batean katedradun edo irakasle oso plaza eskatzeko irizpideak.
1461	IK	KO	Amaierako ebaluazioan atal teorikoa eta atal praktikoa bereiz gaitzeko exijentzia.
1462	IRI	KO	Bizikidetzaren arazoak irakaskuntza talde batean.
1463	IK	KO	Desadostasuna irakasleak galdera bat baliogabetzearekin.
1464	IK	KO	Ebaluazioa koordinatzea irakasgai baten talde guztietan.
1465	Beste batzuk	KO	Odontologia titulua homologatzeko deialdia.
1466	Beste batzuk	KO	Irakasgai baten kalifikazioa berrikusteko prozedura.
1467	AZP	KO	Aldi baterako langileek unibertsitate ikasketen matrikularako laguntzak eskatzeko eskubidea.
1468	IK	KO	GRALa defendatzeko baldintzak
1469	IK	KO	Ikastegi baten zuzendaritzak azterketa data bat aldatzeko aukera, arrazoi justifikatu bategatik.
1470	Beste batzuk	KE	Ikastegi batek espedienteak lekuz aldatzeagatik ikasketak egiteko ezartzen dituen baldintza bereziak.
1471	AZP	KO	Aparteko orduak sartzeko betebeharra.
1472	IRI	KO	Hierarkian gorago dagoen pertsonarekin duen bizikidetzaren gatazkatsua hobetzeko neurriak.
1473	AZP	KO	Arazoak lankideekiko harremanetan.
1474	IK	KO	Desadostasuna ikertzaileak prestatzeko 2021eko beken deialdiak dakartzen aldaketekin.
1475	IK	KO	Desadostasuna MALren tutorearekin.
1476	IK	KO	Desadostasuna GRALaren kalifikazioarekin eta erreklamazioa egiteko prozedura.

1477	IK	KE	Irregularitasunak graduako irakasgai baten ebaluazioan.
1478	IK	KO	Ebaluazio bereziaren prozedurari buruzko kontsultak.
1479	Beste batzuk	KO	Tituluak eta ziurtagiriak lortzea.
1480	IRI	KO	Irregularitasun posibleak Ebaluazio Batzordearen izendapenean, sail batean poltsak irekitzeko prozeduran.
1481	IRI	KO	Eskubideak aitortzea lan kontratuko kategoria aldaketaren formalizazioan izandako atzerapenagatik.
1482	IRI	KO	Ikerketan merezimenduak ebaluatzeko irizpideak.
1483	IK	KO	Graduko espedienteak lekualdatzen duten irakasleek irakaskuntza taldea aukeratzeko duten eskubidea.
1484	Beste batzuk	KO	Espediente lekualdatzeagatik gradu batera sartzeko kupo berezi bat ezartzeko aukera.
1485	IRI	KO	Ustezko irregularitasunak GRAL baten ebaluazioan.
1486	IRI	KO	Kide anitzeko organo baten bilkuran izateko eskubidea, aldi baterako ezintasun egoeran egonik.
1487	IRI	KO	UPV/EHUren Erreklamazio Batzordearen jardun prozedura.
1488	Beste batzuk	KO	Gradura sartzeko itxaron zerrenden funtzionamendua.
1489	IRI	KO	Kide anitzeko organo baten bileran irakurritako dokumentuaren kopia lortzeko eskubidea.
1490	IK	KO	Ikasketak jarraitzeko arazo pertsonalak eta osasun arazoak.
1491	Beste batzuk	KO	Informatika aplikazioan sartzeko arazoak, dokumentazioa entregatzeko irakasle-ikertzaileen poltsak irekitzean.
1492	Beste batzuk	KE	Ezohiko deialdia ukatzea.
1493	IK	KO	Ohorezko matrikula eskuratzeko eskubidea Erasmus egonaldietan eginiko irakasgaietan.
1494	IK	KE	Arazoak master baten amaieran eta MALa egitean.
1495	AZP	KO	Desadostasuna egungo euskara hizkuntz eskakizunarekin A taldeko plazetan.
1496	IK	KO	Master batean matrikula epez kanpo egitea, onarpen jakinarazpena ez jasotzeagatik.

1497	IK	KO	Irakaskuntza unitatearen campus aldaketa kupo berezi bidez egiteko aukera.
1498	Beste batzuk	KE	Matrikulatu kopuruaren datuak eskatzea gradu baten lehen mailan.
1499	AZP	KO	Lanaldia murrizteko aukera erretiroaren aurretik.
1500	AZP	KO	Zer egin lankide baten salaketaren aurrean.
1501	IRI	KO	Ikasleen kexa bati emandako erantzuna berrikustea.
1502	IK	KO	Talde aldaketa epez kanpo eskatzeko aukera, ezohiko arrazoiengatik.
1503	IRI	KO	Saileko kontseilura joateko eskubidea laneko baja egoeran egonik.
1504	IK	KO	Ikasleek deitutako greba eskaera.
1505	IK	KO	Mugikortasun programa batean dagoen atzerriko ikasle baten arazoak nahitaezko dokumentazioarekin.
1506	IRI	KO	Saileko plaza bat betetzeko prozedura.
1507	IK	KE	MALaren kalifikazioa berrikusteko eskaera.
1508	IK	KO	Doktorego aurreko beka eskatzeko baldintzak ez betetzea, beken araudia ustez aldatzeagatik.
1509	IK	KO	Zer egin harrera unibertsitateak Erasmus+ hitzarmena ez betetzean.
1510	IK	KO	Irakasgai baten kalifikazioa berrikusteko prozedura.
1511	IK	KO	Ikastegiko Batzarreko kide batek organo horren bilera baten grabazioa eskuratzeko eskubidea.
1512	IK	KO	Zer egin harrera unibertsitateak Erasmus+ hitzarmena ez betetzean.
1513	IRI	KO	Bizikidetza arazoak saileko kide batekin.
1514	IK	KE	Ezin eskuratzeko garaiz eta behar bezala eskatu den eta onartu egin den egokitzapen baliabidea.
1515	AZP	KO	Bizikidetza arazoak ikasle batekin.
1516	Beste batzuk	KE	Bigarren Hezkuntzako doktore gradua aitortzea.
1517	IK	KO	Irakasgai bat eskainitako hizkuntza ez den beste hizkuntza batean ematea.

1518	IK	KE	Ikastegian kredituak aitortzeari buruzko informaziorik eza eta eskaera horien kudeaketa desegokia.
1519	IK	KO	Aurkezten diren tituluak direla eta, irakasle-ikertzaileen lan poltsa baten sartzeko eskubidea.
1520	IK	KE	Euskarazko C1 titulua egiaztatzekeo salbuespena ukatzea.
1521	IK	KO	Irakaslearen jokabide desegokiaren aurrean jarduteko pautak.
1522	IK	KO	Irakasle-ikertzaile plazan lortutako puntuazioak banakatzeko eskubidea.
1523	Beste batzuk	KO	Irakasle-ikertzaile plaza bat esleitzeko proposamena inpugnatzeko prozedura.
1524	IRI	KE	Erretiro aurreraturako pizgarrien eskaera ukatzea, epez kanpo egiteagatik.
1525	Beste batzuk	KO	UPV/EHUra sartzeko bideei buruzko zalantzak.
1526	IRI	B	Bizikidetzaz arazoa konpontzeko bitartekaritza eskaintzea,
1527	IRI	KO	Zer egin irakasleari esleitutako irakaslanarekin desados egonez gero.
1528	IRI	KE	Desadostasuna giza baliabideak arrazionalizatzeko Gobernu Kontseiluak onartutako planarekin (erretirora igarotzeko neurriak).
1529	IRI	KO	Ikasketak egiteko edo zabaltzeko baimena lortzea egonaldi erregimenean.
1530	IK	KO	Arazoak doktorego tesiaren zuzendariarekin eta doktorego programaren Batzorde Akademikoarekin.
1531	IK	KO	Ebaluazio jarraituari uko egiteko betebeharra, justifikatutzat jotzen diren hutsegiteengatik.
1532	AZP	KE	Desadostasuna lanpostuaren zereginen berrantolakuntzarekin.
1533	AZP	KE	Desadostasuna giza baliabideak arrazionalizatzeko Gobernu Kontseiluak onartutako planarekin (erretirora igarotzeko neurriak).
1534	IK	KO	Unibertsitate tituluaren baliokidetasuna.
1535	AZP	KO	Nahitaezko betebeharrak publiko bat betetzeko baimena eskatzeko baldintzak.

1536	IRI	B	Arazoak saileko lankideekin.
1537	IRI	KO	Irakats gaitasuna gainditzen duen irakaslana onartzeko betebeharra.
1538	IRI	KO	Sail batean plaza betetzeko prozedura egokitzea.
1539	IK	KO	Ustezko hutsegitea matrikularen bigarren ordainketa kobratzean.
1540	Beste batzuk	KO	Erreklamazio prozedura Margarita Salas modalitateko laguntzetan.
1541	IRI	KE	Saldoak berreskuratzeko prozedura ekitaldia ixtean ikertaldearen BGUetan.
1542	AZP	KE	Erantzun falta AZPko plazaren deialdiarekin zerikusia duten galderetan.
1543	IK	KE	Titulu batean euskarazko irakaslana eskatzea.